

## **Bizkaiko Tronkalitatea eta Familia Prozesuak: iragana, oraina eta geroa\***

ESTIBALIZ IBARRA SAINZ

Zuzenbidean eta Ekonomia Espezialitatean graduatua

Deustuko Unibertsitatea

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 31/12/2015

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 20/03/2016

**Laburpena:** Euskal Zuzenbide Pribatuko ikerkuntza lan honetan historian zehar Bizkaian indar berezia izan duen foru erakunde baten, tronkalitatearen azterketa esaguratsua egiten da. Horretarako jatorrizko legeriatik abiatuz, horren bilakaera historikoa azalduko da gaur egungo arauketaren izaera eta zergatia zein den jakiteko. Aldi berean, Euskal Lege Zibil Foralaren gaineko proposamena ere azertuko da. Tronkalitatea, hau da familiaren iraunkortasuna bermatzeko sorturiko erakunde foral bizkaitarraren gainean arituko da ikerketa osoa, hortaz honen gaineko doktrina ezberdinak aztertuko dira eta bukatzeko etorkizunean tronkalitatearen iraunkortasuna bermatzeko beharrezkoak izango lirateekeen aldaketak jasoko dira.

**Gako-hitzak:** tronkalitatea, euskal zuzenbide pribatua, Bizkaiko foru zuzenbidea, foru erakundea, Euskal Lege Zibil Foralaren proposamena.

\* Lan honek Zuzenbidearen Euskal Akademiaren legelari gazteentzako Adrian Celaya 1. Saria eskuratu zuen. Hortaz, 5/2015 Legea, Euskal Zuzenbide Zibilarri buruzkoa indarrean jarri aurrekoa da eta aipamenak aurreko legerari buruz egiten dira. Bere horretan argitaratzea erabaki da, kontuan hartuz Zuzenbide iragankorraren aldetik duen balioa eta egindako lanaren lekukotza gisa.

**La troncalidad vizcaína y los procesos de familia: presente, pasado y futuro**

**Resumen:** En el presente estudio de Derecho Privado Vasco se analiza una figura muy importante y característica de los territorios históricos vascos, especialmente de Bizkaia llamada, troncalidad. Para ello el trabajo comienza con un estudio del derecho foral vasco, y su evolución histórica para comentar el porqué de la situación actual y la legislación vigente hoy en día. Asimismo, y junto a las anteriores se hace hincapié en la Propuesta de Ley Civil vasca. La troncalidad es una institución foral vasca creada para la perdurabilidad de la familia, para ello se examinan las distintas tesis doctrinales que existen en relación con ella y para concluir con el estudio, se recogen los cambios necesarios para garantizar la permanencia de esta institución.

**Palabras clave:** troncalidad, derecho privado vasco, Derecho Foral de Bizkaia, Fuero Vasco, Propuesta de Ley Civil Vasca.

**Biscayne Real Estate Trunk Statute and family judicial procedures: present, past and future**

**Abstract:** This Basque Civil Law work analyses a very important and distinctive Basque Territories institution, especially in Biscay, the Real Estate Trunk Statute. Therefore, the work starts with a study about the Basque Chartered Laws, and its historical evolution, in order to answer why to the present situation and in force regulation. Notwithstanding these topics, there is an emphasis regarding the Basque Civil Law proposal. The Real Estate Trunk Statute is a Chartered Law institution devised to let the family last. Therefore different doctrinal thesis about it are examined, and, as the end, necessary changes to ensure the perdurability of this institution are included.

**Key words:** Real Estate Trunk Statute, Basque Private Law, Biscay Chartered Law, Basque Civil Law Proposal

AURKIBIDEA: I. SARRERA. II. EDUKIA. 1. Sarrera. 1.1. *Bizkaiko biztanleriaren egoera eta familia antolaketa* 1.2. *Familiaren iraunkortasuna bermatzeko erakunde foral bizkaitararak*. II. TRONKALITATEA. 1. Tronkalitatea eta antzeko erakundeak. 1.1. *Tronkalitatearen agerpenak Bizkaiko Foru Zuzenbidean*. 1.2. *Tronkalitatearen agerpenak Bizkaiko ordenamendu juridikotik kanpo*. 1.3. *Tronkalitatearen antzeko bete erakunde batzuk*. 2. Tronkalitatearen kontzeptua eta ezaugarriak. 2.1. *Kontzeptua*. 2.2. *Tronkalitate motak*. 2.3. *Tronkalitatearen graduak*. 2.4. *Tronkalitatearen elementuak*. 3. Bizkaiko tronkalitatearen araubidearen bilakaera historikoa. 3.1. *Tronkalitatea 1452ko Bizkaiko Foru Zaharrear*. 3.2. *Tronkalitatea 1526ko Foru Berrian*. 3.3. *Zuzenbide Foralak Kodegintza Aroan eta Tronkalitatea Espainiako 1889ko Kode Zibilean*. 3.4. *Tronkalitatea 1959ko Bizkaiko Konpilazioan*. 3.5. *Zuzenbide Foralak 1978ko Espainiako Konstituzioaren geroztik*. III. TRONKALITATEA GAUR EGUN. 1. Tronkalitatea 3/1992 Legean. 1.1. *3/1992 Legearen eta tronkalitatearen lurralde eremua*. 1.2. *Tronkalitatearen kontzeptua, helburua eta ezaugarriak*. 1.3. *Tronkalitatearen elementuak*. 1.4. *Tronkalitatearen ondoreak*. 1.4.1. *Tronkaleko ondasunak dohain bidez eskualdatzea*. 1.4.2. *Tronkaleko ondasunak kostubidez eskualdatzea*. 1.4.3. *Tronkalitatea eta oinordetza*. 1.4.4. *Tronkalitatea eta ezkontza eraentza*. 2. *Tronkalitateak oinordetzan sortzen dituen lege-gatazkak*. IV. TRONKALITATEAREN ETORKIZUNA. 1. Tronkalitatea epe laburrean: Euskal Lege Zibil Foralaren Proposamenean. 1.1. *Euskal Lege Zibil Foralaren aplikazio-eremua*. 1.2. *Jabetzaren familia izaera*. 1.3. *Tronkalitatearen garrantzia*. 1.4. *Tronkalitateak sortu dituzkeen lege-gatazkak konpontzeko eskumena*. 1.5. *Tronkalitate erakundearen arauketaren desberdintasunak 3/1992 Legearekin konparatuz*. 2. Tronkalitatea epea luzera. III. ONDORIOAK. IV. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA. 1. Iturriak. 1.1. *Legeak*. 1.2. *Jurisprudentzia*. 2. Doktrina. 2.1. *Liburuak*. 2.2. *Artikuluak*. 2.3. *Jardunaldiak*. 2.4. *Web orriak*.

## I. SARRERA

Euskal Zuzenbide Pribatuko ikerkuntza-lan honetan zehar Euskal Herriko foru-erakundeetatik Bizkaian indarra berezia eta historian zehar oso sustraituta egon den erakundearen gainean azterketa esangura-

tsua egingo da, tronkalitatearen erakundearena, alegia. Horretarako, jatorrizko legeriatik abiatuz, horren bilakaera historikoa azalduko da, gaur egungo arauketaren izaera eta zergatia zein den jakiteko. Eta, geroago, gaur egungo arauketatik abiatuta, Euskal Lege Zibil Foralaren Proposamenean aurkeztutako arauketa aztertuko da, azkenik, tronkalitatearen iraunaldiaren gaineko Doktrina eztabaidari irtenbide bat emateko eta etorkizunean tronkalitatearen iraunkortasuna nola bermatu daitekeen azaltzeko.

Tronkalitatearen printzipioak, geroago azalduko den bezala, eragin handiak dauzka bizkaitarren gainean, tronkalitateak dakarrelako banakako interesen ginetik familiaren interesak lehentasuna edukitzea. Honek baditu, beraz, Bizkaiko familia prozedurari dagokionez, kontuan hartu beharreko berezitasun asko eta horiek dira, hain zuzen ere, lan honen bitartez azalarazi nahi direnak. Egia da, halaber, tronkalitatea oso era sakonean aztertu dela hainbat eta hainbat autoreren eskutik baina horrek islatu baino ez du egiten erakunde honen garrantzia; horrenbestez, erakunde honek duen indarra galdu ez dadin horren izaera kontuan hartu eta gaur egungo eta, batez ere, etorkizuneko familia eta gizarte eredu-tara egokitzea baino ez dauka.

Lan hau burutzeko metodologiari dagokionez, Bizkaiko Foru Zuzenbidean adituak diren autoreetatik abiatu, Jado edo Chalbaud, besteak beste, Espainiako autoreak diotenarekin konparatu eta Celaya legelariaren lanak aztertu dira, erakunde honen gainean azterketa zabala egin duelako, beste hainbat eta hainbat erakunde foralen gainean egin duen era berean baina modu berezian. Horrela, tronkalitatearen jatorriak eza-gututa, eta sortzen dituen arazoak ikusita, erakunde honen gaineko norainokoa eta norabidea aztertzeke beste tresna izan ditut, ikerkuntza-lan hau burutzea ahalbidetu didatenak. Lanaren edukiari dagokionez, esan bezala, azterketa historiko-juridikoa egin da, beste ordenamendu juridiko batzuekin konparatu eta tronkalitateak sortzen dituen arazoak deskri-

batu ere egin dira, lege-gatazken gaineko arazoak, batik bat. Eta, gainera, orain Eusko Legebiltzarrean proposatuta dagoen Euskal Lege Zibil Foralaren Proposamena aztertu eta tronkalitateari dagokionez aldatu beharko liratekeen gauzak aipatu ere egin dira, etorkizunean tronkalitatearen erakundea, bizkaitarren artean miresmen eta ohitura handia duena, galdu ez dadin.

Iturrien aldetik, aipatutako autoreez gain, lege ugari ere aztertu dira eta tronkalitateari buruz diharduten epairik garrantzitsuenetarikoak ere aintzat hartu dira, betiere Bizkaiko Zuzenbide Foralaren alorreko adituen liburuak eta tronkalitatearen gainean jardun duten aldizkari juridikoak kontuan hartuta.

Eta, amaitzeko, eta sarrera honetan ez luzatzekotan, lanaren egiturari dagokionez, esan beharra dago edukiak lau kapitulu eta ondorio batzuk dituela, jarraian iturri bibliografikoen zerrenda aurkituko delarik. Lehenengo kapitulari dagokionez, sarrera moduan aztertu egin da Bizkaiko biztanleriaren egoera eta familia antolaketa historian zehar eta, bestetik, familiaren iraunkortasuna bermatzeko sorturiko erakunde foral bizkaitarren gainean arituko da. Bigarren kapituluan, aldiz, tronkalitatearen erakundea sakonean aztertuko da, antzeko erakundeak kontuan hartuz, horren kontzeptua eta ezaugarriak azalduko dira eta banan-banan aztertuko dira gaur egun arteko legeria guztiak. Hirugarren kapituluan, bere aldetik, gaur egungo arauketa azalduko da eta lege-gatazken gainean arituko da. Eta edukiarekin amaitzeko, laugarren kapituluan tronkalitatearen etorkizuna azalduko da; alde batetik, epe laburrean, Euskal Lege Zibil Foralaren Proposamenean araututakoa kontuan hartuz, eta beste alde batetik, epe luzera erakunde honen iraunkortasuna mantendu nahi baldin bada zein norabide hartu beharko litzatekeen azaltzen du eta lanaren ondorioekin bat egiten du.

## II. EDUKIA

## 1. Sarrera

*1.1. Bizkaiko biztanleriaren egoera eta familia antolaketa*

Familia da, Manuel Irujo Olloren esanetan, bizkaitarron erakunde ekonomikoen artean nagusia. Gure herriko familiaren iraunkortasunak eta konterbadore izaerak, etxean eta baserrian dute oinarri. Beraz, autore honek dioen moduan, gure ohiko demokrazia organikoa eta instituzionala da; hortaz, Bizkaiko gizartearen zelula familia da. Izan ere, herri batzarrak familiek osatzen zituzten eta horietan botoa familiari zegokion, eta ez norbanakoari<sup>1</sup>. Bizkaiko familiaren modelo familia zabala moduan ulertuko da, hau da, bere baitan askotan hiru belaunaldiak ere hartzen dituen. Frédéric Le Play-k familia tronkal moduan izendatu zuen familia mota hori<sup>2</sup> eta gehienetan osatzen zuten, senar-emazte helduek, aitona-amonak zirenek; eta senar-emazte gazteek, gurusoak zirenek; horietaz aparte, horien seme-alabek; ezkongabe zeuden ahaidekin, gehienetan bi senar-emazteen anai-arrebak zirenek; eta morroiek<sup>3</sup>. Moretek eta Silvelak, hain zuzen ere, idatzi zuten: (...) *sus habitantes, (...) diseminados por las faldas de sus colinas que tapizan blancos caseríos, conservan más que otro pueblo la vida familiar de otras edades* (...)<sup>4</sup>. Horrenbestez, Ángel Sánchez de la Torrek dioen moduan, tronkalitatea ulertezina da familia tronkalaren eremu sozial eta juridikotik kanpo<sup>5</sup>.

<sup>1</sup> IRUJO OLLO, Manuel. *Instituciones Jurídicas Vascas*. Tafalla: Ekin-Txalaparta argitaletxea, 2. argitaraldia, 2006, 97-103 orr.

<sup>2</sup> VALPUESTA FERNÁNDEZ, Rosario. *La disciplina constitucional de la familia en la experiencia europea*. Valentzia: Tirant Lo Blanch, 2012, 33. or.

<sup>3</sup> MONASTERIO ASPIRI, Itziar. «La familia en Bizkaia y su régimen jurídico». *JADO Aldizkaria*. Zuzenbidearen Euskal Akademia. Bilbo, XI. urtea, 5. zk., 2005ko martxoa, 48. or.

<sup>4</sup> MORET Y PRENDESGAST, Segismundo et SILVELA Luis. *La familia foral y la familia castellana: Memoria premiada por la Academia Matritense de Jurisprudencia y Legislación en el concurso abierto en 20 de junio de 1862*. Madril: Imprenta y Librería de la Señora Viuda é Hijos de D. José Cuesta, 1863, 82. eta 83. orr.

<sup>5</sup> SÁNCHEZ DE LA TORRE, Ángel. *Dos aspectos del Derecho Vizcaino: la Troncalidad y la Legítima*. Madril: Librería Jiménez Mayor, 66-68, 1950.

Azpimarratu behar da, XIV. eta XV. mendeetan zehar, Bizkaiko Lurralde Historikoa auto hornikuntzan oinarritutako ekonomia zela, hau da, bizi-iraupen hutsean oinarritutako ekonomia. Lehen esan bezala, etxea da herriaren ekonomiaren zimentarria, eta ahaideek osatutako taldea enpresa gisa egituratzen zen artisautza, abeltzaintza, nekazaritza eta basogintza ustiatzeko. Horrenbestez, Leire Imaz Zubiaurrek dioen moduan, enpresa eta familia, praktikan, gauza bera ziren<sup>6</sup>.

### *1.2. Familiaren iraunkortasuna bermatzeko erakunde foral bizkaitarrak*

Bizkaiko Zuzenbidean, beraz, lurrak garrantzi handia zuen; esan bezala, familiak abeltzaintza, nekazaritza eta basogintza ustiatzeaz bizi ziren, eta horregatik Bizkaian jabetzak izaera berezia zuen familiaren interesa babesteko funtzioa zuelako. Le Playren ustez, familia tronkalaren ezaugarriek familiaren iraunkortasuna bermatzea zuten helburu<sup>7</sup> eta, horregatik, Jesús Delgado Echeverriak dio familia tronkala dela belaunaldiz belaunaldi haren ondareari eusten diona. Hala eta guztiz ere, azken autore honek gogorarazten du Le Play-ren familia tronkala eta tronkalitatearen erakundea fenomeno desberdinak direla nahiz eta lotura estua egon haien artean<sup>8</sup>. Honen harira, Luis Chalbaud Errazquinaren ustez, familiaren iraunkortasuna helburutzat duten erakunde foral bizkaitarren artean foru-komunikazioa, oinordetza askatasuna eta tronkalitatea dira esanguratsuenak<sup>9</sup>.

Erakunde horiei esker, Bizkaian familia eta ondarea bateratuta daude araubide bakar batean, batik bat, tronkalitatearen printzipioari esker, eta hori izango da, hain zuzen ere, geroko ibilbidean garatuko den erakunde

<sup>6</sup> IMAZ ZUBIAUR, Leire. «Tronkalitatea». *Euskal Zuzenbide Zibila II*. Euskal Herria: EHUko Euskararen Arloko Errektoreordetzaren Sare Argitalpena, 2014, 105. or.

<sup>7</sup> LE PLAY, Frédéric. *La réforme social en France déduite de l'observation comparée des peuples européens*. Paris: Plon, 1864.

<sup>8</sup> DELGADO ECHEVERRIA, Jesús. «Propiedad troncal y patrimonio familiar». Deustu: Jornadas Internacionales sobre Instituciones civiles vascas, 1991, 44-63. orr.

<sup>9</sup> CHALBAUD Y ERRAZQUIN, Luis. *La troncalidad en el Fuero de Vizcaya (1898)*. Bilbao: Zuzenbidearen Euskal Akademia, edición fásimil 1898, Bilbo: Tipografía de Sebastián Amorrortu, 2005.

foral bizkaitarra, José Solano Polancok dion moduan, Bizkaiko tronkalitateaz hitz egitea Bizkaiko Zuzenbide Foral osoari buruz hitz egitea delako, horren muina eta arima dena<sup>10</sup>.

Horrenbestez, begi bistakoa da tronkalitateak sekulako eragina duela jabetzan; beraz, jabetzak gizarte interesa duen heinean, tronkalitatea sartzen den kasuetan ez da norbanakoen mesederako ematen, familia edo etxearen mesedetan baino. Nolanahi ere, nahiz eta Adrián Celaya Ibarrenaren esanetan, jabetzak familia izaera izan, jabetza ez zen kolektiboa, hau da, ez zen familiarena, indibiduala edo banakakoa baizik. Leire Imazek dion moduan, ez zen familia bera ondasun zehatzaren jabe, norbanakoa baizik, baina jabetza bazuen familiaren interesa babesteko funtzioa, izaera<sup>11</sup>. Hala ere, ez zen bigegabe ikusten seme-alaba bakar batek ondare guztia oinordetzan hartzea familiaren beste kideak beste jardueretan lan bila zihozten bitartean. Gainera, Manuel Irujo Olloren esanetan, azpimarratzekoa da oinordekoak ez zeukala zertan gizonezkoa izan, emakumezkoa izan zitekeen ere. Era berean, ez zen adina kontuan hartzen oinordekoa izendatzerakoan, familiaren ondarea hobe babestuko zuenari eman omen zitzaion eta<sup>12</sup>.

## II. TRONKALITATEA

### 1. Tronkalitatea eta antzeko erakundeak

#### 1.1. *Tronkalitatearen agerpenak Bizkaiko Foru Zuzenbidean*

Tronkalitatea Bizkaiko Foru Zuzenbidean hainbat eta hainbat erakundetan agertuko da, esaterako; testamentuzko oinordetzan, non au-

<sup>10</sup> SOLANO POLANCO, José de. *Estudios jurídicos del Fuero de Bizcaya*. Bilbo: Diputación de Bizcaya, 1918.

<sup>11</sup> IMAZ ZUBIAUR, Leire. «Tronkalitatea». *Euskal Zuzenbide Zibila II*. Euskal Herria: EHUko Euskararen Arloko Errektoreordetzaren Sare Argitalpena, 2014, 104. or.

<sup>12</sup> IRUJO OLLO, Manuel. *Instituciones Jurídicas Vascas*. Tafalla: Ekin-Txalaparta argitaletxea. 2. argitaraldia, 2006, 97-103 orr.



rreko eta alboko ahaide tronkerok lehentasunez hartuko dute oinorde-tza; testamenturik gabeko oinordetzan; dohaintzetan; kostubidezko bes-terentzetan; foru-komunikazioan eta abar. Beraz, Beraz, ikusi daiteke tronkalitateak bere garrantzia duela gaur egungo Bizkaiko ordenamendu juridikoan, eta horiek izango dira hurrengo ataletan aztertuko direnak.

Aurretiaz esan bezala, tronkalitateak familiaren iraunkortasuna du hel-buru, eta hori kontuan izanda, arraroa izango litzateke horrelako ager-penik ez aurkitzea beste leku batzuetan; hain justu ere, familiaren iraun-kortasuna bermatzea gizaki guztiei datzekien gauza bat dela esan daiteke. Horixe da hurrengo ataletan aztertuko dena, tronkalitatearen seinaleak edo bestelako agerpenak Bizkaitik kanpo, hain zuzen ere.

### *1.2. Tronkalitatearen agerpenak Bizkaiko ordenamendu juridikotik kanpo*

Adrián Celaya Ibarren ustetan, ez dago Europan tronkalitatearen an-tzeko beste erakunderik Aragoi eta Nafarroako tronkalitatearen formak kenduta. Eta hala ere, azkenengo bi horiek ez dute Bizkaiko tron-kalitatearen indarrrik ezta hedadurarik ere<sup>13</sup>. Honen harira, Leire Imaz Zubiaurrek dio tronkalitateak, egun, Bizkaiko ordenamenduan bakarrik irauten duela bere distira osoarekin<sup>14</sup>.

Gaztelako Zuzenbide Zaharreko lege askotan, José María Scalak aur-kitu egin ditu tronkalitateari buruz diharduten erreferentzia asko, esate baterako; *Fuero Juzgoan*, Gaztelako Foru Zaharrean, Foru Errealean, Es-tiloko Legeetan eta hainbat eta hainbat udal Forutan<sup>15</sup>. Geroago, Parti-dek tronkalitateari buruzko erreferentzia horiek guztiak ezabatuko zi-

<sup>13</sup> CELAYA IBARRA, Adrián. «La Troncalidad». *JADO Aldizkaria*. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria. Bilbo. XI. urtea. 23zk. 2012ko ekaina, 9. or.

<sup>14</sup> IMAZ ZUBIAUR, Leire. «Tronkalitatea». *Euskal Zuzenbide Zibila II*. Euskal Herria: EHUko Euskararen Arloko Errektoreordetzaren Sare Argitalpena, 2014, 108. or.

<sup>15</sup> SCALA, José María. «La troncalidad en el Derecho Foral de Vizcaya». *Urbis*, XI, 38 zb., 1963, 40-48. orr.

tuzten. Espainiako ordenamendu juridikoan, beraz, ordutik aurrera tronkalitatea desagertu egin zen eta aurkitu daitekeen hondar bakarra Kode Zibilaren 811. artikulua erreserba da, erreserba tronkala ere deritzona tronkalitatearen printzipioan oinarrituta dagoelako<sup>16</sup>. Hala ere, Toroko VI. Legeak salbuespena ezarriko zuen foru eskualdeetan, eta horregatik, Bizkaiaz aparte, tronkalitatearen erakundea beste foru lurraldeetan jarraitu zuen, Nafarroan eta Aragoian, batik bat<sup>17</sup>.

Nafarroaren ordenamendu juridikoari dagokionez, tronkalitateari aipamenak egiten dizkioten arau foral zibilak asko dira, besteak beste, euren Konpilazio Zibil Foraleko<sup>18</sup> 306. legean adierazten dira zeintzuk diren tronkaleko ondasunak eta 307. legean, ezartzen dira zeintzuk diren tronkaleko ahaideak. Gainera, azpimarratzekoa da 48. legeak aurreikusitako duela, etxeak ez duela nortasun juridikorik, baina hala ere izen berezia duela eta eskubide eta betebeharren subjektua dela *auzotasun harremanetan, zerbitzu egiteetan eta herri aprobetxamenduetan, finken identifikazio eta mugaketetan, eta tokiko ohitura eta usadioek ezarritako bestelako harremanetan* ere. Bestetik, 274. legean aurretiaz aipatu den Kode Zibileko 811. artikuluko lehen erreserbaren antzeko erreserba ezarri da. Eta, azkenik, Konpilazioaren III. Liburuaren IV. Tituluaren III. Kapituluan atzera-eskuratze jentilizioa arautu da, tronkalitatearekin lotura estuak dituen erakundea dena, eta hurrengo atalean aztertuko dena.

<sup>16</sup> Kode Zibilaren 811. artikulua: *Aurreko batek bere ondorengoaren ondasun batzuk jarauntsi baditu, eta ondorengoak dohainik eskuratu izan baditu ondasunok beste aurreko nahiz neba edo arreba baten eskutik, aurreko horrek erreserbatu behar ditu lege-aginduz eskuratu dituenak, ondasunok zein lerrotatik etorri eta lerro horretan hirugarren gradurainoko ahaide direnen mesederako.*

<sup>17</sup> Toroko VI. Legea: *Los ascendientes legítimos, por su orden, y linea derecha, sucedan ex testamento et abintestato á sus descendientes, y le sean legítimos herederos (...) en todos sus bienes, de cualquier calidad que sean (...) salvo en las Ciudades, Villas, y Lugares, do segun el fuero de la tierra se acostumbra tomar sus bienes al tronco, ó la raíz á la raíz*". ÁLVAREZ POSADILLA, Juan: *Comentarios a las Leyes de Toro, según su espíritu y el de la legislación de España en que se tratan las cuestiones prácticas...* Madrid: Imprenta de la viuda de Ibarra, 1796, 76-77. orr.

<sup>18</sup> 1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa, Nafarroako Konpilazio Zibil Foralarena.

Beste alde batetik, Aragoi, tronkalitatea euren Konpilazio Foralean agertzen da VII. Tituluan<sup>19</sup>, lehenengo eta behin, 517. artikuluan, lege oinordetzaren ordena ezartzen denean eta, geroago, 526, 527, eta 528. artikuluetan, non arautzen diren oinordetza tronkala, aboloriozko ondasun tronkalak eta tronkaleko ondasun arruntak, hurrenez hurren. María Martínez Martínezek dion moduan, Bizkaiko tronkalitateak eta Aragoiko testamenturik gabeko oinordetza tronkalak antzeko ezaugarri eta izaera dute, baina aldi berean erakunde oso desberdinak dira<sup>20</sup>.

Aragoi eta Nafarroaz gain, Kataluniako ordenamendu juridikoan ere aurkitu daitezke tronkalitatearen eraginak. Horrela, Kataluniako Kode Zibilaren Laugarren Liburuan<sup>21</sup>, oinordetzarena, tronkalitateari aipamen batzuk ere egin zaizkio, batik bat, 425.7. artikuluko ordezen pupilarerako tronkalitatearen printzipioa ezarri denean eta 444.1. artikuluan, adin txikien oinordetzetan ondasunei tronkal izaera aurreikusten zaienean.

### *1.3. Tronkalitatearen antzeko beste erakunde batzuk*

Tronkalitatearen erakundeak, esan bezala, familia eta ondarea bateratzen ditu. Horrenbestez, familiaren ondareaz hitz egin daiteke. Historian zehar Bizkaia ez da familia ondarea arautu duen bakarra, beste sozietate askok familiaren iraunkortasuna bermatzeko nahian tronkalitatearen antzeko erakundeak sortu dituzte. Esan beharra dago, Bizkaian tronkalitatea sortu zen era berean, orain aztertuko diren erakundeak familian oinarritutako ekonomietan sortu izan direla, hau da, familia taldeak enpresa moduan jarduten duen gizarteez hitz egingo da.

Familia ondarearen kontzeptua erakunde bihurtu da Hego Ameriketako herrialde askotan, Perun, Mexikon, Kolonbian eta Bolivian esaterako, eta horien araudien arteko desberdintasunetan sartu barik, Familia Ondarea erakunde juridiko bat da, gaztelaniaz “Patrimonio Familiar” deritzona, non ondasun higiezin baten jabetzaren titularrek modu iraunkorrean erabiltzen dute gela etxe moduan, nekazaritzako, artisautzarako, industriarako edo merkataritzarako, erakunde honen onuradunentzako

bizileku edo mantenu iraunkorra bermatzeko helburuarekin. Ondarearen aurrekariak Ipar Ameriketako legegintzan aurkituko dira, *Homestead* izeneko erakundean, hain zuzen ere, eta haren itzulpena euskaraz leku egonkorra edo etxe seguru edo sendoa da. Erakunde hau, aldi berean, Texasko Estatuak 1839. urtean ezarritako lege batean *Homestead Lowe* izeneko erakundetik eratorritakoa da, 1863. urtean lege federala bihurtuko zena Abraham Lincoln-en lehendakaritzan<sup>22</sup>. Argentinan ere, antzeko erakunde bat dago gaztelaniaz “Bien de Familia” deritzona. Laburbilduz, aipatutako erakunde hauek babeserako erakunde juridikoak dira, familiaren mantenu, iraunkortasun eta garapenerako ondasunak babesten dituen, horiek besterendu edo enbargatzeko debekua izan dezaten, ondasun horietan familiak nekazaritza, artisautza, industria edota merkataritza jarduera ekonomikoak gauzatzen direlako.

Espaniara bueltatuz, tronkalitatearen forma edo antzeko erakundea atzera-eskuratze jentilizioa da. Nafarroako Konpilazio Zibil Foralaren<sup>23</sup> 452. Legeak dio atzera-eskuratze jentilizioa dela foru nafar izaera duten pertsonen egikaritu dezaketena Nafarroan dauden ondasun higiezin zehatzak edo horiekiko zatitu gabeko kuotak erreskatatu edo berreskuratze. Gainera, Nafarroako atzera-eskuratze jentilizioak sekulako lotura du tronkalitatearekin, izan ere, 306. Legeak aurreikusten du erakunde honen bidez lortutako ondasunek tronkaleko izaera mantenduko dutela. Aragoi erakunde honek izen berezia hartzen du abolorio edo saka eskubidea delarik, eta tronkalitatearen helburu berbera du, ondasun zehatz batzuk familiaren barruan geratu daitezten, hain zuzen ere. Eta, azkenik, nahiz eta Galizian tronkalitatearen eragina txikia izan, euren Konpilazioko<sup>24</sup> 68. eta 69. artikuluetako atzera-eskuratzea ere antza handia dauka, atzera-eskuratzea ai-

<sup>22</sup> VARSÍ ROSPIGLIOSI, Enrique et al. *Patrimonio Familiar*. Perú: Taller de Investigación de la Universidad de San Martín de Porres, 2011, 3. or.

<sup>23</sup> 1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa, Nafarroako Konpilazio Zibil Foralarena.

<sup>24</sup> 2/2006 Legea, ekainaren 14koa, Galiziako Zuzenbide Zibilarena.

tortzen zaielako jabetza kolektiboan daukaten erroten gainean, horien jabetkideen familia kontsumorako den heinean. Galziaren kasuan, gainera, aipatzeko modukoa da, familiaren iraunkortasuna babesteko forma Bizkaikoarekin zerikusi handirik eduki ez arren, bizkaitarrok familiari ematen diogun garrantzi berbera ematen diotela esan daiteke, eta horren isla da haien Konpilazioaren VIII. Tituluan familia konpainia galegoaren arauketa.

## 2. Tronkalitatearen kontzeptua eta ezaugarriak

### 2.1. Kontzeptua

Tronkalitate hitza, berez, *troncalidad* deritzona gaztelaniaz, Real Academia Españolaren hiztegian *Principio jurídico, de tradición española, según el cual los bienes deben pasar, en la herencia por ley de una persona, a favor de la línea de parientes de que aquellos procedían* esan nahi duena, Euskaltzaindiaren hiztegian, oraindik ez da agertu, baina, Euskalterm Hiztegi Terminologikoan, 2006. urtean euskarazko itzulpena sartu egin zen, tronkal edo tronkalekotasun moduan. Hiztegi honek emandako definizio juridikoa honakoa da: *Jabetza antolatzeke modua, familiaren eta onibarren artean batasuna ezartzen duena: onibarren jabeak ezin ditzake onibarrok erabili tronkaleko senideen eskubideak kontuan izan gabe*. Hala ere, esan beharra dago autore batzuk *oinetxekotasun* hitza erabili dutela tronkalitateari buruz hitz egiteko eta hori da, hain zuzen ere, Añamendi Eusko Entziklopediak erabili duen terminoa.

Doktrina, Tronkalitatearen kontzeptua ezartzeko orduan, ez da bakesua izan; horrela, autore batzuek eta besteek emandako definizioaren artean ezberdintasun ugari aurkitu daitezke. Tronkalitatearen kontzeptuari buruz, azterketa sakona egin duen autorea Adrián Celaya Ibarra da eta autore horien definizioak eta tronkalitatearen ezaugarriak konparatu eta kritikatzeko ditu<sup>25</sup>.

<sup>25</sup> CELAYA IBARRA, Adrian. «La Troncalidad en Vizcaya». *Anuario de Derecho Foral-I*. Iruña: Separata, 1975, 357-379. orr.

Alde batetik, Frédéric Le Play<sup>26</sup>, Guilherme Braga da Cruz<sup>27</sup> edo Luis Moutón y Ocampo<sup>28</sup> autoreek tronkalitatea testamenturik eta ondorengorik gabeko oinordetzara mugatzen dute. Eugenio Fernández Asiáinek<sup>29</sup>, bere aldetik, tronkalitatea mugatzen du testamenturik eta ondorengorik gabeko ondasun higiezinaren oinordetzara. Beste alde batetik, kontrara, Bizkaiko Doktrina Foralak, Chalbaud<sup>30</sup>, Solano<sup>31</sup> edo Ramón de Hormaechek<sup>32</sup> osatuta, tronkalitatearen kontzeptu zabalagoa ematen dute, non tronkalitateak edozein motatako eskualdaketetan parte hartzen du, *inter vivos* zein *mortis causa* izan. Hala eta guztiz ere, azken autore honetako batek, Ramón de Hormaechek, adierazten du egia dela Bizkaiko Foruaren barruan tronkalitateak eragin handiagoa duela ondasun higiezinaren kostubidezko besterentzetan.

Adrián Celaya Ibarren ustetan, Gaztelako autoreek emandako definizioak huts egiten dute Bizkaiko erakunde foralak gutxiegi aztertu izan dituztelako. Horren harira, Ramón Jado y Ventandes-ek, Bizkaiko Zuzenbide Zibilaren azterketa sakona egin zuenak, dio tronkalitateak eragina duela onibarren eskualdaketa guztietan, eskualdaketa *inter vivos* egintzen

<sup>26</sup> LE PLAY, Frédéric. *La réforme social en France déduite de l'observation comparée des peuples européens*. Paris: Plon. 1864.

<sup>27</sup> BRAGA DA CRUZ, Guilherme. *O direito da troncalidade e o regime jurídico do património familiar*. Braga: Livraria Cruz, 1941.

<sup>28</sup> MOUTÓN Y OCAMPO, Luis. *Enciclopedia Jurídica Española. 30. liburukia*. Bartzelona: Francisco Seix. Editor, 1910, 455. or.

<sup>29</sup> FERNÁNDEZ ASIÁIN, Eugenio. *Estudios de Derecho Foral Navarro*. Iruña: Consejo de Estudios de Derecho Navarro, 1956, 95-114. orr.

<sup>30</sup> CHALBAUD Y ERRAZQUIN, Luis. *La troncalidad en el Fuero de Vizcaya (1898)*. Bilbao: Zuzenbidearen Euskal Akademia, edición fàcsimil 1898, Bilbo: Tipografía de Sebastián Amorrtortu, 2005.

<sup>31</sup> SOLANO POLANCO, José de. *Estudios jurídicos del Fuero de Bizcaya*. Bilbo: Diputación de Bizcaya, 1918.

<sup>32</sup> HORMAECHE, Ramón de. *Leyes Civiles de Vizcaya*. Bilbo: Tipografía Católica de José de Astuy, 1891, 97-98. orr.

ondorioz, zein *mortis causa* egintzen ondorioz izan<sup>33</sup>. Eta gauza bera ondorioztatu zen 1962ko abenduaren 22ko Auzitegi Gorenaren Epaian. Epai horretan esaten da tronkalitatea erro bizkaitarra eta familia bizkaitarraren arteko lotura dela eta xedapen-egintza guztietara hedatzen dela.

### 2.2. *Tronkalitate motak*

Braga da Cruzek tronkalitatea bi motatan sailkatu zuen: erabatekoa, batetik, eta bestetik, osatugabea. Erabateko tronkalitatean, tronkalitatearen printzipioa lehentasuna du ahaideen hurbiltasunarekiko. Osatugabeko tronkalitatean, aldiz, ahaideen hurbiltasuna nagusitu egiten da eta bakarrik emango da gradu bereko ahaideak daudenean.

Horrenbestez, Adrián Celaya Ibarrek jarritako adibideak erabiliz<sup>34</sup>, erabateko tronkalitatearen aurrean, aitaren ondasunen oinordetzan tronkaleko ahaideek amarekiko lehentasuna edukiko dute nahiz eta al-bo-koak izan. Osatugabeko tronkalitatean, aldiz, lehentasuna edukiko duena ama izango da. Gainera, osatugabeko tronkalitatean, aita eta amaren artean kontuan edukiko dena ondasunen jatorria izango da, eta horrela jakingo da zein lerrok edukiko duen lehentasuna. Amaitzeko, esan beharra dago, lan honetan zehar aztertuko den moduan, Foru legerietan agertzen den tronkalitatea erabatekoa dela.

### 2.3. *Tronkalitatearen graduak*

Braga da Cruzek egindako tronkalitateari buruzko lanarekin jarraituz, autore honek tronkalitatea hiru gradutan ikertzen du, tronkalitate soilak, tronkalitate jarraitua eta tronkalitate hutsa desberdinduz.

Tronkalitate soilak ondasunen jatorria aztertzen du bakarrik *decuius*-ren gurasoetaraino. Horregatik, bi masa baino ez dira agertzen: amaren-

<sup>33</sup> JADO Y VENTADES, Rodrigo de: *Derecho Civil de Vizcaya. 2. argitaraldia (1923)*. Bilbao: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2004.

<sup>34</sup> CELAYA IBARRA, Adrián: «La Troncalidad en Vizcaya». *Anuario de Derecho Foral-I*. Iruña: Separata, 1975, 365. or.

gandik jasotakoak batetik, eta, bestetik, aitarengandik jasotakoak. Tronkalitatearen gradu honetan aplikatzen den formula ohikoa da, hau da, *pater-na paternis, materna maternis* eta ondorioz, kausatzailearen lerro bakoitze-ko hurbileko ahaideek hartuko dute oinordetza.

Hori guztia kontuan hartuz, tronkalitatearen gradu honek ez du eragozten ondasunak familiarik kanpo joatea; beraz, hurbileko ahaideak ez dauka zertan ondasunak datozen lerro berekoa izan.

Tronkalitate jarraituan, aldiz, ondasunen jatorria aztertu egiten da ondasun horien lehenengo hartzailearen ahaideei egozteko. Horrek dakar, ondorengoak bakarrik ez, lehenengo arbaso horren ahaideak ere oinordeko izatea.

Eta azkenik, tronkalitate hutsa murriztaileena da; tronkalitate jarraituan bezala, ondasunen jatorria aztertu egiten da ondasun horien lehenengo hartzaileira iritsi arte, baina oinordeko izateko baldintza bat ezar-tzen du; lehenengo arbasoaren ahaide hutsa izan beharrean, ondorengoia izatea eskatzen da<sup>35</sup>.

Bizkaiko Foruan, beraz, eta Juan Vallet de Goytisolok aztertutakoari jarraituz, Bizkaiko tronkalitatea tronkalitate hutsa da, Chalbaud irakasleak zioen moduan eta Auzitegi Gorenaren 1868ko apirilaren 25eko eta 1886ko otsailaren 22ko Epaia-zioten moduan. Edozein modutan ere, adierazi behar da 1913ko otsailaren 23an Auzitegi Gorenak emandako beste epai batean tronkalitatea tronkalitate jarraitu moduan ulertu zuela. Hortaz, nahiz eta 3/1992 Legearen 20.2. artikuluari jarraituz tronkalitateak tronkalitate jarraitua dirudi, edo 20.4. artikuluan tronkalitate soila dirudi, 21.2 eta 22.2. artikulua-ku kontuan hartuz, ez dago inolako zalan-tzarik Bizkaiko tronkalitatea tronkalitate hutsa dela esateko<sup>36</sup>.

<sup>35</sup> Informazio gehiena atera da: CELAYA IBARRA, Adrián. «La Troncalidad en Vizcaya». *Anuario de Derecho Foral-I*. Iruña: Separata, 1975, 365-366. orr.

<sup>36</sup> VALLET DE GOYTISOLO, Juan Berchmans: *La troncalidad en relación con la saca foral en la Tierra Llana de Vizcaya. El Derecho Foral Vasco tras la reforma de 1992. Ilustre Colegio Notarial de Bilbao*. Bilbao: Aranzadi, 1996, 74. or.



#### 2.4. Tronkalitatearen elementuak

Luis García Royok dioen moduan, tronkalitatea erlazio juridiko konplexua da<sup>37</sup>, tronkalitatearen elementuak ematen ez diren heinean ezin daitekeelako tronkalitateari buruz hitz egin. Honen harira, 1960ko urriaren 11ko Auzitegi Gorenaren Epaiak ezarri zituen bi elementu eman behar direla, nahitaez, tronkalitatearen esparruan egoteko: batetik, elementu erreala, Infanzonatuan edo Lur Lauan dagoen onibarra dena eta *jus soli* deritzona; eta bestetik, elementu pertsonala, tronkaleko ahaidea dena eta *jus sanguinis* deritzona. Gainera, autore gehienek, hirugarren elementu bat ere eskatzen dute, elementu kausala dena, eta horren bitartez onibarrak familia tronkal bati egotzeko modukoa izatea eskatzen da<sup>38</sup>.

### 3. Bizkaiko tronkalitatearen araubidearen bilakaera historikoa

Bizkaiko tronkalitatearen printzipioa, historian zehar hainbat eta hainbat araubidetan aurkitu daiteke. Hori da, hain zuzen ere, hurrengo atal honetan aztertuko dena, araubidearen bilakaera historikoa, alegia. Bizkaiko Foru Zaharretik abiatu eta gaur egungo tronkalitatearen araubideraino joko da.

#### 3.1. Tronkalitatea 1452ko Bizkaiko Foru Zaharrean

Bizkaiko Tronkalitatea idatziz arautu zen lehenengoz 1452ko Bizkaiko Foru Zaharrean Abellanedako Foruak<sup>39</sup> eraginda, nahiz eta tronkalitatearen kontzeptua ez erabili, bertan aurkitu daitezke erakunde honen zantzuak. Honen adibide garbiena Bizkaiko Foru Zaharreko CXIV. Ka-

<sup>37</sup> GARCÍA ROYO, Luis. *La foralidad civil de las provincias vascongadas. III. liburukia*. Gazteiz: S. Católica, 1952, 11. or.

<sup>38</sup> Elementu hauek sakonago aztertuko dira tronkalitatea 3/1992 Legean (Lanaren 3.1.3). atalean, Tronkalitatearen elementuak 3/1992 Legearen barruan).

<sup>39</sup> Abellaneda Enkartzioen gune politikoa izan zen, eta 1394. urteko Batzan, Gonzalo Moro Korregidorearen garaian, arau eta lege ugari idatziz jaso ziren Abellanedako Forua deituko zena sortuz, gaur egun Enkartzioen Foru Zaharra deritzona, hain zuzen ere.

pituluan aurkitu daiteke; horrek honela dio: *Que no se faga donacion á extraño de raíz, habiendo herederos y descendientes*. Honen inguruan, azpimarratu beharreko lehenengo gauza da Foru Zaharrean jada ezberdintzen zirela ondasun higikorrak eta onibarrak. Gainera, dohaintzetan tronkalitatearen printzipioa aurkitu daiteke, berariaz debekatzen zelako, jaraunslle eta ondorengoak izanda, hirugarren bati onibarren dohaintza egitea.

Bestetik, LXXXV. Kapituluak arautzen zuen onibarrak erosteko lehenetasuna duela ondasun horiek zein lerrotatik etorri eta lerro horreki-ko hurbileko ahaideak, *propincuo* edo *profincio* deritzona (Bizkaiko Foru Berritik aurrera). Angel Sánchez de la Torrek dio, profinkoak direla anai-arreben semeak eta ondorengoak edo laugarren gradurainoko zeharkakoak<sup>40</sup>. Horren harira, aipatutako LXXXV. Kapituluak honakoa dio: *Otrosí dijeron que habian de fuero é de costumbre que el derecho de comprar los tales bienes raíces, por propincuos hayan el pariente mas cercano que viene de la línea donde depende la tal heredad é non otro ninguno, é si muchos fueren los parientes de comprar, cada uno haya su parte, segun la pertenece, libra por sueldo; é si los parientes mas cercanos no compraren é non quisieren comprar, que otro cualquier pariente ó propincuo de aquella línea dentro del cuarto grado puedan demandar é haber el derecho de comprar la tal heredad, ó non otro pariente, alguno que non sea de aquella línea, por cercano que sea*.

Beste alde batetik, Bizkaiko Foru Zaharreko CVI. Kapituluak arautu ziren *ab intestato* jaraunslleak eta bertan aurkitu daiteke testamenturik gabe hildako gizon edo emakumearen ondasunak bere seme-alabek oinordetzan hartuko dituztela, eta horiek izan ezean, haren bilobek, eta horiek ere izan ezean, ondasunak datozen lerroarekiko ahaidetik hurbile-*nek*. Gainera, jarraitzen du esaten: *é si el tal muerto hobiese bienes que hobiere heredado de partes del padre, los parientes mas cercanos del padre hayan los tales bienes sin parte de los parientes de la madre, aunque sean más cercanos, é eso*

<sup>40</sup> SÁNCHEZ DE LA TORRE, Ángel: *Dos aspectos del Derecho Vizcaino: la Troncalidad y la Legítima*. Madril: Librería Jiménez Mayor, 66-68 Madril, 1950, 6. or.

*mesmo sea así en los bienes que heredare de la madre hayan los parientes é esto se entienda en los bienes raíces, ca los muebles todos los parientes de partes del padre é de la madre deben heredar igualmente.*

Horrenbestez, esan daiteke Bizkaiko Foru Zaharrari jarraituz, tronkalitatearen printzipioa jarraitu behar zela nahitaez onibarren eskualdaketa guztietarako, horiek *inter vivos* (kostubidezko besterentze, salerosketa edo dohaintzetan), zein *mortis causa* izan.

### 3.2. Tronkalitatea 1526ko Bizkaiko Foru Berrian

1526ko Bizkaiko Foru Berrian, Hamazazpigarren Tituluko I. Legean onibarrak saltzeko modua eta, salmenta argitaratzeko modua arautu zuen, profinkoek horren berri izan zezaten, eta beraz, berriro ere arautu zuen tronkalitatearen printzipioa errespetatzearen betebeharra. Horren harira, tituluko horretako III. Legeak honakoa ezarri zuen: *Que el propinco se prefiera al comunero. (...) que si acaeciére que en tal venta de bienes rayzes no recudiere pariente alguno, mas profinco del vendedor; que los otros profincos, qualesquiera de aquel tronco, y linea, dentro de el quarto grado se admitan, y concurrán, ó se prefieran por su orden, é grado, segun de suso está declarado. Pero que los parientes de otra linea, de do no depende, ó proviene la tal heredad sean havidos por estraños, en quanto á la troncalidad (...).* Gainera, Hamazazpigarren Tituluko II. Legeak aipatzen zituen tronkaleko ondasunak ez zirenak; beraz, lehenengoz aipatzen zen onibar guztiek ez zeukatela tronkaleko izaera eduki behar. Titulu bereko VI. Legeak, bere aldetik zioen Titulu horretan adierazitako moduan ondasunak saltzen ez baziren salmentak ez zuela inolako baliorik izango.

Hemezortzigarren Tituluan ere, tronkalitatearen adierazpenak aurkitu zitezkeen, horrela II. Legean adierazi zen ezin zela profinkoen kalterako trukaketarik egin. Hogeigarren Tituluko IV. Legeak aurreikusi zuen lehenengo senar-emazteen seme-alabak eraikin eta lurrekin geratuko zirela nahitaez, eta XIV. Legeak arautzen zuen tronkaleko ondasunak xedatzeko modua, seme-alabak edukita eta seme-alabarik gabe: (...) *que cualquier*

*Home, ó Muger que oviere bienes muebles, assi vacas, ó bueyes, ó otros qualesquier ganados, y ropas de lino, ó lana, ó oro, ó plata, y otros qualesquier bienes muebles, en caso que tenga Hijos, ó deecendientes, ó ascendientes legitimos, pueda mandar, y disponer de todo lo tal, fasta el quinto de todos sus bienes muebles, y rayzes, y no mas: Y á falta de los tales decendientes, y ascendientes legitimos, pueda disponer de todo el mueble á su voluntad, reservando la raíz para los profincos tronqueros: Con que si deudas oviere, y bienes muebles el que tal raíz tuviere; de lo mueble se paguen las deudas, y no de la raíz. Hurrengo Legeak, XVI.ak, hauxe aurreikusten zuen *Que la rayz comprada sea de la mesma condicion que ha heredado*, eta, beraz, tronkaleko ondasunekin gertatzen zen bezala, ezin izango zen hirugarren bati eman, hori oinordeko edo profinko ez bazen.*

### 3.3. Zuzenbide Foralak Kodegintza Aroan eta Tronkalitatea Espainiako 1889ko Kode Zibilean

1812. urtean Cádizeko Konstituzioa indarrean sartu zen, eta bere 258. artikuluan ezarri zen Kode zibila, kriminala eta merkataritza Kodea bakarrik izango zirela Monarkia osorako, *sin perjuicio de las variaciones por las particularidades circunstanciales podrán hacer las Cortes*. Edozein modutan ere, 1814. urtean Fernando VII absolutista tronura iritzi eta Konstituzioa indargabetu zuen, eta horregatik Hirurteko Konstituzionalera arte ez zen lehenengo Zigor Kodea aldarrikatu, indarrean sartu ez zena Fernando VII-k tronua berreskuratu zuelako. 1829. urtean, nahiz eta monarkia absolutistan egon, burgesiak Merkataritza Kodea onestea lortu zuten. Gerrogo, 1843. urtean, Isabel II-ren adin-nagusitasunarekin batera, Kodegintza Komisio Orokorra sortu zen eta 1848ko Zigor Kode kontserbadorea, 1851ko Kode Zibilaren Proiektua eta 1855ko Prozedura Zibileko Legea gauzatu ziren. Azkenean, Gobernua ez zen ausartu 1851ko Kode Zibilaren Proiektua onartzera, batez ere zuzenbide foralak arautzeko moduagatik (horien aurka arautu zen berezitasun guztien indargabetzea agintzen baitzen) eta batzordearen lana txalotuz, lan bikaina izan zela onartzen zuen arren, ez zen proiektua lege bihurtzearen alde azaldu.

1876ko Konstituzioarekin batera, kodegintzarekin jarraitu, eta urte batzuk geroago, 1880ko otsaileko dekretu baten bidez, urtebete barruan kodea egiteko agindua eman zitzaion Kode Batzordeari. Oinarritzat 1851ko kode-proiektua hartu zen, baina zuzenbide foralaren arautze egoki bat lortzeko, lurralde forudun bakoitzak bere memoria azaldu zuen. 1888ko maiatzean, Oinarri-Legea aldarrikatu zen, eta Lege horren bosgarren oinarriak zuzenbide foraleko lurraldeetako zuzenbidea aldi baterako mantenduko zela agindu zuen. Urte bat geroago, 1889ko uztailaren 24ean Kode Zibila aldarrikatu zen 12. artikuluari jarraituz Erreinueko probintzia guztietan aplikagarri zena, baina zuzenbide foralak iraun zuen bizirik. Zuzenbide foralak zeuden probintzia eta lurraldeetan oraingoz bere osotasunean mantenduko zutelako aurreikuspena ezarri zen, eta horren ondorioz lurralde horietan Kode Zibila modu osagarrian baino ez zen aplikatuko. Bizkaiko Zuzenbide Foralari dagokionez, 10. artikulua haxe aurreikusi zuen: *Bizkaitarrak, hiribilduetan bizi arren, Bizkaiko Foruaren XX. Tituluko 15. Legearen eraginpean jarraituko dute Lur Lauan dituzten ondasunekiko*. Horri jarraituz, eta aztertutako erakundearekin lotuz, argi zegoen tronkalitatearen printzipioa errespetatu behar zela.

### 3.4. Tronkalitatea 1959ko Bizkaiko Konpilazioan<sup>41</sup>

Aurreko atalean adierazitako inguruabarrak kontuan hartuz, lurralde bakoitzeko sistema juridikoak bere zuzenbidea osotasunean hartu eta Konpilazioak egiten hasi ziren. Bizkaiko Konpilazioa 1959ko uztailaren 30ean egin zen eta Bizkaiko Lur Lauari, Audio eta Aramaiori bakarrik zegokien. Esan beharra dago, autore gehienen ustetan, Konpilazio osoa tronkalitatean oinarritu zela, eta hori da, hain zuzen ere, erakunde honek Bizkaiko beste erakunde foraletan eragin handia edukitzearen arrazoia.

Hasteko, Konpilazioaren 6. artikulua ezarri zuen ahaidetasun tronkalitatea beti zehazten zela Infanzonatuan zegoen onibarrarekiko, eta 7. arti-

<sup>41</sup> 32/1959 Legea, uztailaren 30ekoa, Bizkaiko eta Arabako Zuzenbide Zibilaren Bildumari buruzkoa.

kuluak onibar horiek zehazteko orduan, lehenengo eta behin Kode Zibilararen 334. artikulura jotzen zuen, 1 eta 7 arteko zenbakietako ondasunak (lurrak, zuhaitzak, estatuak, usategiak...) onibar moduan hartuko zirelarik. Bestetik, onibar moduan ere hartzen ziren elizetako hilobiak.

Beste alde batetik, 10. artikuluan adierazten da bizkaitarrek, nahiz eta Bizkaiko lurralde forudunetik kanpo bizi, tronkaleko ahaiderik balego, bakarrik xedatu ahal izango dituztela tronkaleko ondasunak dohainik, *inter vivos* zein *mortis causa* izan, horien alde. 51. artikuluari jarraituz, gainera, ondasun tronkalak xedatzerakoan tronkaleko ahaideek lehentasunez eskuratzeko eskubidea zuten eta horregatik 52. artikuluan ezarritako prozedura burutu behar zen mota hauetako ondasunak besterentzeko. Horren ondorioz, jendaurrean tronkaleko ondasunen salmenten berri eman behar zen ediktuen bidez tronkaleko ahaideek lehentasunezko eskuratzeko eskubide horretaz baliatzeko. Gainera, azpimarratzekoa da, 60. artikulua, Audio eta Aramaio udalerrietara ere Bizkaiko Foruaren indarra zabaltzen duela<sup>42</sup>.

### *3.5. Zuzenbide Foralak 1978ko Espainiako Konstituzioaren geroztik*

Egun, 1978ko Konstituzioaren eraginez, aurretiaz aztertutako egoera hura guttiz aldatu da. Espainiako Konstituzioaren 2. artikuluan ezarri da Konstituzioak aitortu eta bermatu egiten duela Espainia osatzen duten nazionalitate eta herrialdeen autonomia- eskubidea, bai eta horien guztien arteko elkartasuna ere. Horren harira, Konstituzioaren Lehengo Xedapen Gehigarrian ere ezarri da Konstituzioak lurralde forudunetako eskubide historikoak babestu eta errespetatzen dituela. Horrenbestez, 1889ko Kode Zibilararen 12. artikuluan ezarri zen zuzenbide foralen aldi baterako mantentzea ahaztu eta Autonomia Erkidego eta Estatuaren arteko eskumenak banandu dira.

<sup>42</sup> CELAYA IBARRA, Adrián: *Compilación de Vizcaya y Álava* en ALBALADEJO, M. (dir.): *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*, tomo XXVI. Madrid: Edersa, 1978, 587-588. orr.

Eskumenei dagokienez, 149.1.8. artikulua dio zuzenbide zibileko legegintza Estatuari dagokiola, baina aurreikusi da zuzenbide zibil edo foral bereziak dauden tokietan toki horietako Autonomia Erkidegoek mantendu, aldatu eta garatu ahal izango dutela euren zuzenbide zibil, foral edo berezi hori. Hori dela eta, Euskal Herriko Autonomia Erkidegoaren Estatutuak<sup>43</sup> 10.5. artikuluan dio bere eskumen eskusiboa dela *Euskal Herria osatzen duten Herrialde historikoen Zuzenbide Zibil foral eta berezia, idatzi nahiz ohizko, kontserbatze, aldatze eta garatzea, eta berebat horren indarreko lurralde-barrutiaren finkatzea*, eta eskumen horretan oinarrituta, 1988ko martxoaren 18an Eusko Legebiltzarrak 6/1988 Legea<sup>44</sup> onartu zuen, 3/1992 Legeak<sup>45</sup> urte batzuk geroago ordeztuko zuena.

3/1992 Legea, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa, hiru liburutan banatuta dago: Lehenengo Liburua Bizkaiko Foru Zuzenbideari dagokio, Bigarrena Arabako Foru Zuzenbideari dagokio, eta, azkenena, Gipuzkoako Foru Zuzenbideari dagokio. Esan beharra dago, azken liburu honetan, inguruabar historikoak zirela eta (oraindik ez ziren idatziz jaso), artikulua bakarra baino ez zuela 1992. urtean, eta horregatik, 3/1999 Legeak<sup>46</sup> azken liburu hori eraldatu eta osatu zuen.

Horrenbestez, Bizkaiko tronkalitatearen gaur egungo arauketa 3/1992 Legearen Bizkaiko Zuzenbide Foralaren I. Liburuaren II. Tituluan aurkituko da, batik bat, eta hori da, hain zuzen ere, hurrengo ataletan aztertuko dena.

<sup>43</sup> 3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.

<sup>44</sup> 6/1988 Legea, martxoaren 18koa, Foru-Zuzenbide Zibilaren Zatziko Aldaketari buruzkoa.

<sup>45</sup> 3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa.

<sup>46</sup> 3/1999 Legea, azaroaren 16koa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionez.

### III. TRONKALITATEA GAUR EGUN

#### 1. Tronkalitatea 3/1992 Legean

##### 1.1. 3/1992 Legearen eta tronkalitatearen lurralde eremua

Tronkalitatea arautu egin da, aurretiaz esan den bezala, Bizkaiko Foru Zuzenbidearen Liburuan, hau da, Lehenengo Liburuan. Dena dela, Liburu horren 5. artikulua dioen moduan, *bere osotasunean izango du indarra Lur Lauan*. Horren harira, 6. artikulua zehazten du Lur Laua deritzola *Bizkaiko Lurralde osoari, Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugalete eta Plentzia hirietako eta Urduña ziutateko alde forugabekoa eta Bilboko gaurengungo udal mugarte osoa kanpoan utzita*. Gainera, tronkalitatearen erakundea ere Laudion eta Aramaion da aplikagarri. 3/1992 Legearen Bigarren Liburuan, Arabako Zuzenbide Zibilaria dagokiona, 146. artikuluan ezarri da udalerrri horietan Bizkaiko Forua dela ezargarri, *Bizkaia Lurralderako bereziki ezargarri izan daitekeen lurralde-eremuaren zehaztapenari dagozkion erabakiak salbu*.

##### 1.2. Tronkalitatearen kontzeptua, helburua eta ezaugarriak

Lehenengo Liburuaren II. Tituluaren 17. artikuluan ezartzen da onibarren jabetza tronkalekoa dela izate horrekin etxaguntza familia barruan gordetzen delako. Horren ondorioz, onibarren jabeak ezin ditzake onibarrok erabili tronkaleko senideen eskubideak kontuan izan gabe, eta horregatik, tronkaleko senideen eskubideei kalte egiten diezaieketen xedapen egintzen aurka egin daitezke Legean ezarritako moduan eta forman.

##### 1.3. Tronkalitatearen elementuak

Lan honen aurreko ataletan aipatu den moduan, tronkalitatea aplikagarri izateko elementuak hiru dira: erreal, pertsonala eta kausala.

Elementu errealari begira, 3/1992 Legearen 17. artikuluan lehen leerroan esaten da onibarren jabetzari buruz bakarrik aldarrikatzen dela



tronkalitatea eta 19. artikuluan ezarri da zeintzuk izango diren tronkaleko ondasunen izaera edukiko dutenak: *Lurra eta lur gainean eraiki, landatu eta ereindako edozer eta Elizateko sepulturak*. Edozein modutan ere, ondasun higigarriak ere tronkaleko ondasunak izan daitezke 19. artikuluko bigarren paragrafoari jarraituz; horren arabera, lurra eta lur gainean eraiki, landatu eta ereindako edozeri lotutako zein batutako ondasun higikorrek ere onibartzat joko dira, baina puntualizazio bat egiten du, hau da, horietatik banandu ahal badira horiei kalterik egin gabe, orduan modu bananduan eskualdatu ahal izango dira, eta, beraz, tronkaleko izaera galduko dute. Era berean, 19. artikuluko hirugarren paragrafoak berariaz adierazi du *eskuratu gabeko fruituak, lurrarekin batera eskualdatzen ez diren landarak eta ebakitzeko saltzen diren zuhaitzak* ez direla inola ere tronkaleko ondasunak izango.

Elementu pertsonala dela eta, tronkaleko senide izango dira 20. artikuluan ezarritako ahaideak, betiere kontuan izanda seme zein alaba ordeentzako, tronkaleko senidetasuna seme-alabatzakoa guraso ordearen odoleko semea edo alaba balitz bezala zehaztuko dela, gorako zein albo bako belaun lerroan, eta 21. artikulua ezarritakoari errespetatuz: a) behe-rako belaun-lerroan gradu mugarik gabe: seme-alabak eta gainerako ondorengoak, baita ordekoak ere; b) gorako belaun-lerroan, tronkaleko senidetasuna jatorriko onibarra lehenengoz eduki zuen aurrekoan bukatzen delarik: tronkalaren jatorritik datorren belaun-lerroko aurrekoak, baita bizirik dirauen aita edo ama ere ezkontza bitartean erosi edo irabazitako eta bietako bat hildakoan bion seme-alabek jarauntsi ondasunetarako; c) alboko belaun-lerroan, laugarren graduraino: onibarren jatorritik datorren aitaren edo amaren belaun-lerroko senideak. Beste alde batetik, gainera, 23. artikulua dio tronkaletik datozen eskubide eta bete-kizunak Bizkaiko herritar zibil guztiei dagozkiela, bizkaitar diren heinean, eta geroago ikusiko den moduan, nahiz eta Bizkaiko auzotasuna galdu, horrek ez du esan nahi tronkalitatearen printzipioa aplikatu behar

ez zaienik. Horrenbestez, berdin dio kausatzailearen auzotasuna zein den, baldin eta titular horrek tronkaleko ahaide bizkaitarrak baditu, horregatik Legeak eskatzen dituen elementuak edukitzearekin (Lur Lauan dagoen tronkaleko onibarra, tronkaleko ahaidea eta elementu kausala) nahikoa izango litzateke tronkalitate printzipioa errespetatzearen bete-beharra sortzeko.

Elementu kausalari dagokionez, 3/1992 Legearen 18. artikulua eza-ri du Tronkaleko senidetasuna Lur Lauan dagoen onibarrari begira zehaztuko dela beti. Era berean, 22. artikulua dio tronkalekoak izango direla: a) beherako belaun-lerroari dagokionez, Lur Lauan dauden onibar guztiak, edonola eskuratuak direla, kanpokoengandik eskuratuak izan arren; b) gorako eta alboko belaun-lerroei dagokienez, Lur Lauan dauden eta oinordekoaren edo eskuratzaileraren edo oinordetzailearen edo eskualdatzailearen oin berekoak diren onibar guztiak, oinordetzaileak kanpokoengandik eskuratuak barruan direla; c) tronkaleko ondasunen truke zein ordezkotzan hartzeak eskatzen duen beste ordainbidezko bideren batez eskuratutako Lur Lauan dauden onibarrak. Beraz, ez da bakar-bakarrrik elementu erreala eta elementu pertsonala eskatuko, aurretiaz aipatu den 1960ko urriaren 11ko Auzitegi Gorenaren Epaiak adierazi zuen bezala; elementu kausala ere behar-beharrezkoa da tronkalitateari buruz hitz egin ahal izateko, hau da, onibarrak familia tronkal bati egozteko modukoa izatea eskatzen da, edo beste era baten esanda, tronkaleko ondasunen eta tronkaleko ahaideen arteko lotura.

#### *1.4. Tronkalitatearen ondoreak*

Tronkalitate printzipioaren ondorioz, 3/1992 Legaren 17. artikulua dioen moduan, onibarren jabeak ezin ditzake onibarrok erabili tronkaleko senideen eskubideak kontuan izan gabe, eta horregatik, tronkaleko senideen eskubideei kalte egiten diezaieten xedapen egintzen aurkara daitezke Legean ezarritako moduan eta forman.

#### 1.4.1. Tronkaleko ondasunak dohain bidez eskualdatzea

Dohaintzei dagokienez, 24. artikulua ezartzen du baliogabeak izango direla tronkaleko ondasunak kanpoko inori zein eskualdatzailearen lehentasunezko belauneko ez den senideri eskualdatzeko dohaineko ekin-tzak, *inter vivos* zein *mortis causa* izan. Baliogabetasun horrek ez dauka inolako konponbiderik eta aurretiaz aipatu den 1959ko Konpilazioaren 10. artikulua bide beretik doa.

Beste alde batetik, gainera, 25. artikulua dio Bizkaitar forudun ez direnek askatasuna dutela tronkaleko ondasunak lehentasunezko belau-neko tronkaleko edozeini dohain eskualdatzeko, baina hartzaileak ezingo duela hartukizunik izan tronkaleko ez diren ondasunetan, ondasunokin gainerako senipartedunei euren legezko seniparte laburra eman arte. Gainera, 26. artikuluari jarraituz, baserria gainerakoekin dohain eskualdatzerakoan, besterik esan ezean, altzariak, abereak, lanabesak eta us-tiapien- ezarkinak sartuko dira.

Horrenbestez, tronkaleko ondasunak dohain bidez eskualdaketa ba-liozkoa izan dadin, nahitaez tronkaleko ahaide bateri egin behar zaio, beste tronkaleko ahaideen eskubideak kontuan izanda, senipartedunen eskubideak, batik bat.

#### 1.4.2. Tronkaleko ondasunak kostubidez eskualdatzea

Kostu bidezko eskualdatzearen kasuan, aldiz, ez da baliogabetasuna aurreikusi. Hala ere, tronkaleko ahaideek tronkaleko ondasunak lehenta-sunez eskuratzeko eskubidea izango dute 3/1992 Legearen 112. artiku-luari jarraituz eta 113. artikuluan ezartzen da: *lerro bakoitzaren barruan, hurbilagoko senideak urrunagokoa kanporatzen du eta lehentasunez eskuratzeko eskubidea belaun-maila bereko senide batek baino gehiagok erabiltzen badute, eskubidea funtsa duen tronkalekoari dagokio edo, bestela, inorenganatzaileak euron artean nahiago duena aukera dezake eta inor aukeratu ezean, eskuratzai-lea notarioaren aurreko zozketaz erabakiko da.*

Hori dela eta, tronkaleko ondasunak eskualdatzerakoan, notarioaren aurrean foru- deia egin beharko da tronkaleko ahaiderik balego euren lehentasunezko eskuratzeko eskubideaz baliatu daitezzen Legeak aurreikusitako prozedura erabilia.

Aldiz, onibarra besterendu balitz foru-deirik egin gabe, eskuratu duenak baino lehenagoko eskubidea duen tronkaleko edozeinek erabil dezake saka eskubidea, egindako besterentzea bertan behera uzteko eta funtsa bidezko balioaren arabera bera izendatzeko eskatuz 123. artikuluan ezarritakoari jarraituz, hau da, saltzaile eta eroslearen aurkako agizko epaitzetan erabili behar izango du. Horrela, saka gertatuko balitz, onibarraren balioaren salneurria gordezizun eman beharko du tronkalekoak Epaitzean, eta horren gainean erosleak izango du lehentasuna, saltzailearen beste edozein hartzekodunen aurretik, egindako erosketaren salneurria eta horren erredituak berreskuratzeko. Eroslearen eta saltzailearen arteko arazoak, kalteei buruzko erantzukizunak direla-eta, epaiaren egiterapenaldian erabakiko dira gertakizunen ekinbide berean, baina berezita.

#### 1.4.3. Tronkalitatea eta oinordetza

Tronkalitateak Bizkaiko beste erakundeekiko duen eragina kontuan hartzen bada, inolako zalantzarik gabe, oinordetzarekin duen lotura azpimarratu behar da.

Horrela, oinordetza arautzera jo aurretik, 3/1992 Legearen 28. artikulua dio tronkaleko senideak esaten denean besterik gabe, haiei dagokien oinaren belaun-lerrotik testamenturik gabeko oinordetzara deituriko senideak direla ulertu behar dela.

Horrez gain, III. Idazpuruaren V. Atalburuaren 85. artikulua ezartzen du gurasoengandik onibarririk dohainik lortu izan duen seme-alabarik onibarrok berriro ere dohain eskuratzen badizkio aitari edo amari eta dena delako guraso horrek, gerokoan berriro ezkondu edo aurretiaz hildako ezkontidearena ez den seme-alabarik izanez gero, eskualdatzailearen eta

bere guraso bereko neba-arrebentzat edo euren edozein ondorengoren-  
tzat gorde beharko dituela ondasunok. Beste alde batetik, 86. artikulua  
arautzen du berriro ezkontzen den alargunak, edo aurrerago hildako ez-  
kontidearena ez den seme-alabarik duenak, hildako ezkontidearen tron-  
kaleko senideentzat gorde beharko dituela hildakoarengandik foru-ko-  
munikazioaren bidez etorritako tronkaleko ondasunak.

#### 1.4.3.1. Tronkalitatea testamentu bidezko oinordetzan

Testamentu bidezko oinordetzaren arauketan, azpimarratzekoa da Le-  
gearen 53. artikuluan derrigorrezko oinordekoak deitzeko hurrenker  
ezartzen duenean esaten dela tronkalekoetarako aginduta dagoenari kal-  
terik egin gabe, lehenengo eta behin, seme- alabak, ordekoak barruan di-  
rela, eta gainerako ondorengoak deituko direla, eta bigarrenez, gurasoak  
eta beste aurrekoak. Horrenbestez, tronkalitatearen printzipioari jarraituz,  
hurrenker hori erabat aldatu daiteke baldin eta tronkaleko ondasunekiko  
tronkaleko ahaideak baldin badaude eta horiek bat ez badatoz 53. arti-  
kuluan aipatutako derrigorrezko oinordekoekin. Beraz, tronkaleko onda-  
sunei dagokienean, 57. artikuluari jarraituz, belaun-lerro bakoitzeko tron-  
kaleko aurrekoak bakoitzaren belaun-lerrotik datozenetarako izango dira  
oinordeko. Horrela, tronkaleko aurrekorik ez badago, testamentugileak  
izendatutako tronkaleko alboko senideak izango dira oinordeko tronka-  
leko ondasunetan eta aipatu gabekoak isilbidez baztertuta daudela uler-  
tuko da. Alde honetatik, alboko senideei banatutako ondasunek ez dute  
gutxituko testamentugileak askatasunez bana dezakeen zatia.

Beste alde batetik, tronkalitatearen printzipioa jarraituz, 60. artikulua  
arautu du tronkaleko ondasunen gainean ere ezin izango dela ordezen  
edo kargarik ezarri, belaun-lerro bereko tronkaleko senideren baten alde  
ez bada. Gainera, oinordetzaillearen tronkaleko ondasunak zenbatu egin-  
go dira seniparteari dagokion zatia ateratzeko eta, ezer baino lehen, se-  
nipartea ordaintzeko jarriko dira, testamentugileak kontrakorik berariaz  
adierazi ezean, hori baita 62. artikulua ezartzen duena.

Eta testamentuzko oinordetzarekin amaitzeko, 63. artikulua ezarri du oinordetzailearen zorrak ondasun higigarriekin eta tronkaleko ez diren ondasun higiezinekin ordainduko direla. Ez batekorik eta ez bestekorik ez dagoenean bakarrik izango dira erantzule belaun-lerro bakoitzeko tronkaleko onibarrak, bakoitzaren heinean.

#### 1.4.3.2. Tronkalitatea testamenturik gabeko oinordetzan

Testamenturik gabeko oinordetzan seme-alaba edo ondorengorik ez badago, 68. a) artikulua ezarri du tronkaleko ondasunak aitaren zein amaren aldeko belaun-lerroko tronkaleko ondasunak belaun-lerro bakoitzeko tronkaleko aurrekoei dagozkiela, ezkontza bitartean erosi edo irabazita-koen gainean 20. artikuluko 3. zenbakian esandakoaren kalterik gabe eta belaun-lerroren batean tronkaleko aurrekorik ez dagoenean, ondasunok horren alboko senide tronkalekoei dagozkiela. Ostera, 69. artikuluari jarraituz, ondorengorik ez aurrekorik ez badago, alargunak 58. artikuluan aitortutako seniparte-eskubideak izango ditu tronkaleko ondasun horien gainean, hau da ondasun guztien bi herenaren gozamina izango luke, eskudiruko kapital baten truke alda dezaketena tronkaleko senideek.

#### 1.4.4. Tronkalitatea eta ezkontza eraentza

Ezkontza eraentzak, bere aldetik, tronkalitatearen printzipioari eutsi eta errespetatu beharko du, horrela, 93.3. artikulua dio edonola ere, ezkontzaren ondasunen jaurpidean izandako aldaketak ez direla beste inork eskuratutako eskubideen edo tronkaletik eratorritakoen kalterako izango.

Bestetik, 106. artikulua ezarri du eskuordeko izendatutako alargunak bere buruari esleitzen diezaioketela ondasun guzti-guztien erdia, beste erdia hildakoaren oinordekoentzako utzita, tronkaleko ondasunak gorde beharri kalte egin gabe.

Foru-komunikaziopean zeuden ondasunak esleitzeko 108. artikuluan ezarritako arauak hartu behar dira kontuan, horrela, lehenengo eta behin, alargunari bere jatorrizko tronkaleko onibarrak esleituko zaizkio,

dagokion hartzekoa ordaintzeko eta horiek nahikoak ez badira, esku-ondasunek eta tronkaleko ez diren onibarrek osatuko dute bere hartzekoa. Eta, horiek nahikoak ez direnean baino ez da joko hildako ezkontidearen tronkaleko ondasunetara. Eta, azkenik, 110. artikuluari jarraituz, ondorengorik izan ez eta ezkontza eraentza ezkontideatariko baten heriotzagatik amaitzen bada hildakoaren baserrira etorritako alargunak, alargun dirauen artean, baserrian jarrai dezake urtebete eta egun batez, legezko edo borondatezko erabakiz dagozkion gainerako eskubideen eragozpenik gabe. Gainera, alargunak ezkonsaria edo antzeko ondasuna ekarri balu, aurrean zehaztutako epe hori luzatu egingo litzateke hildakoaren jaraunsleek berori itzultzeko eman dezaketen denbora guztian zehar. Eta amaitzeko, tronkaleko onibarren ordainbidezko eskuraketak edo hobekuntzak, zeinen lerrotik datozen hartako ezkontidearentzat edo bere tronkaleko jaraunsleentzat izango dira. Edonola ere, ezkontzaren ondasunen jaupidea kitatzerakoan, beste ezkontideari edo bere oinordekoei dagokien hartzekoa ordaintzeko, kontuan izango da egindako diru ezarketen balio eguneratutakoa. Ordainketa hori ezkontide alarguna hil arte egin gabe utz daiteke, bizi den artean bere erdia askatasun osoz gozatu eta erabiltzeko eskubidea aitortzen baitzaio.

## 2. Tronkalitateak oinordetzan sortzen dituen lege-gatazkak

3/1992 Legearen 23. artikuluko bigarren paragrafoak dio bizkaitar autotasuna galtzek ez dituela ezertan murriztuko beraren indarrez izandako eskubide eta betekizunak. Era berean, lehengo paragrafoari jarraituz, tronkaletik datozen eskubide eta betekizunak Bizkaiko herritar zibil guztiei dagozkie, bizkaitar direnez. Hori horrela den heinean, zuzenbide forala forudun ez direnei ere aplikatzen zaie bertan ohikotasunez aplikatzen den lege baztertuz, eta horren ondorioz lege-gatazkak sortzen dira.

Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. artikuluan Estatuak lege-gatazkak konpontzeko arauak emateko eskusibotasuna duela agertzen da, eta

horren ondorioz, Kode Zibilera jo beharko litzateke oinordetza batean tronkalitateak sortzen dituen lege-gatazkak konpontzeko. Kode Zibilaren 16.1. artikuluari jarraituz, nazioko lurraldean legeria zibil desberdinak izateagatik lege-gatazkak sortzen badira, gatazka horiek IV. kapituluari jasotako arauekin bat etorriz konponduko dira. Horrela, IV. kapitulura jo, eta Kode Zibilaren 9.8. artikuluari eutsiz, kausatzaileak heriotza unean zein naziotasun izan eta naziotasun horri dagokion legeak arautuko du heriotzaren ondoriozko oinordetza. Hau guztia kontuan hartuta, badirudi tronkalitatearen erakundea alde batera utzi beharko litzatekeela lege-gatazkak sortzen direnean; beraz, tronkalitateak ez du lege-pertsonala kontuan hartzen, onibarrak dauden tokiaren legea baino.

Baina 3/1992 Legearen 16. artikulua lege-gatazken inguruan arautu du berariazko araurik ez balego, Bizkaia barruan legebide desberdinak batera egoteak piztu ditzan lege-gatazkak arau orokorra erabilia ebatziko direla, erakunde bakoitzaren izaeraren arabera, eta arau hori izan beharko zen lege-gatazkak konpontzeko jarraitu beharko zena. Honi jarraituz, tronkalitatearen printzipioa bere osotasunean aplikatu beharko litzateke legeak eskatzen dituen elementuak ematen badira, hau da, tronkaleko ondasunak, tronkaleko ahaideak eta horien arteko lotura ematen denean. Honen inguruan, Doktrinaren zati gehienak uste du Estatuak Espainiako Konstituzioaren 149.1.8. artikuluan araututako eskusibotasuna Autonomia Erkidegoen arteko lege-gatazkak arautzeko baino ez duela eta ez horien barruan, Bizkaia-aren kasuan lurralde forudun eta forugabeen artean sortzen diren lege-gatazkak arautzeko, hori baita Autonomia Erkidego bakoitzaren eskumena.

Beste alde batetik, Espainia Europar Batasuneko kide den heinean, Europar Batasuneko 650/2012ko Erregelamendua<sup>47</sup> errespetatu behar du eta Erregelamendu horretako 30. artikulua, 2015ko abuztuaren 17tik aurrera izango dena ezargarri, dio onibarrak dauden Estatuako le-

<sup>47</sup> 650/2012 Araudia Europar Parlamentu eta Kontseiluarena, mortis causa oinordetza arautzen duena.



geak xedapen bereziak aurreikusten baditu ekonomia, familia edo gizarte arazoietan oinarrituz, xedapen horiek aplikatuko direla nahiz eta oinordetzari aplikatuko den legea ez izan. Horrenbestez, tronkalitatearen izaera familiarra kontuan edukita, oinordetzetan lege-gatazkak sortuko balira Kode Zibila eta 3/1992 Legearen artean, indarrean sartuko den artikuluari jarraituz Estatuko legeak alde batera utzi beharko litzateke tronkalitatearen xedapenak aplikagarriak izateko.

Horren harira, Auzitegi Gorenak 2010eko martxoaren 11n epai bat eman zuen eta bertan esan zuen tronkalitatea mantendu behar zela nahiz eta kausatzaileak bizkaitar auzotartasuna galdu. Bertan ebatzi zen kasua honakoa zen: kausatzaileak, testamenturik gabe hil zena, aurretiaz Neguriko onibarraren erdia oinordetzan hartu zuen bere amarengandik, eta momentu horretan bizkaitar auzotartasuna zuen. Geroago auzotartasun hori galdu zuen hamar urte baino gehiagoz Madrilen modu iragankorrean bizi izan zelako, eta, orduan ab intestato hil egin zen, forugabea izanik. Auzitegi Gorenak ulertu egin zuen, 3/1992 Legearen 23. artikuluari jarraituz, kausatzailearen tronkaleko ondasunak haren tronkaleko ahaideek, eta ez alargunak, hartu behar zituztela *ab intestato* hil zelako. Epaiaren Zuzenbide Oinarrien 3.a letrak dion moduan tronkalitateak *mortis causa* eskualdaketetan oinordetzaren Zuzenbide ezargarria mugatzen du. Horren ondorioz, nahiz eta Zuzenbide Erkidea aplikagarri izan oinordetzari (kausatzaileak Bizkaiko auzotartasuna galdu zuelako), tronkalitatearen betekizunak ematen badira, tronkalitateak salbuespen moduan jardungo du erakunde horren izaera dela medio, horretatik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak eragingarriak izan daitezen.

#### IV. TRONKALITATEAREN ETORKIZUNA

1991. urtean, Jesús Delgado Echeverriak tronkalitateak edukiko zuen etorkizunari dagokionez bi iritzi sortu zirela dio erakundeak azken men-

dean zehar eduki zuen bilakaera ikusita. Batetik, Chalbaud irakasleak eta Oñatiko 1918ko Kongresuak tronkalitatea hiri eta industria jabetzara hedatuko zelako alde zeuden. Bestetik, ordea, tronkalitatea nekazaritza moderno moduko Zuzenbide batera mugatzearen alde agertu zirenen artean Gregorio Balparda zegoen<sup>48</sup>. 3/1992 Legea indarrean sartu zenean bi iritzi horiek erabat bazterturik utzi ziren eta tronkalitatearen erakundea bere antzinako osotasunean iraunaraztearen jarrera jarraitu zen.

Azken urteetan, Euskal Lege Zibil Foralaren Proposamena dela eta, eztabaida asko izan dira erakunde honen etorkizunari dagokionez. Azpimarratzekoa da Euskal Lege Zibil Foralaren helburu nagusia Lurralde Historikoen zuzenbide foral bereziak bateratzea dela, beste foru lurraldeetan egin izan duten bezalaxe. Horrenbestez, tronkalitatearen erakundearekin zer egitearen erabakia ez da erraza izan, batetik beste Lurralde Historikoak bereganatu nahi ez duten erakunde bizkaitarra delako, eta, bestetik, Bizkaia barruan ere bere lurralde-eremua mugatuta dagoelako. Hala ere, 2015eko martxoaren 10ean Euskal Legebiltzarrean aurkeztutako Euskal Lege Zibil Foralaren Proposamenean tronkalitatearen erakundea ia aldaketarik gabe arautu da, hurrengo atalean ikusiko den moduan.

Tronkalitateak ba al dauka gaur egungo gizartearen oniritzia? Tronkalitatearen erakundea borondatezkoa izan beharko litzateke? Tronkalitatea bere osotasunean iraunarazi beharko litzateke? Horixe da, hain justu ere, hurrengo atalean aztertuko dena, eta, aldi berean, nire ustez etorkizuneko tronkalitatearen arauketa nolakoa izan beharko litzatekeen azalduko da.

#### 1. Tronkalitatea epe laburrean: Euskal Lege Zibil Foralaren Proposamenean

Euskal Lege Zibil Foralaren Proposamenean tronkalitatearen erakundeak, 3/1992 Legean arautu zenarekin konparatuz, ez ditu desberdinta-

---

<sup>48</sup> DELGADO ECHEVERRÍA, Jesús. «Propiedad troncal y patrimonio familiar». Deustu: Jornadas Internacionales sobre Instituciones civiles vascas, 1991, 44-63. orr.

sun nabaririk jasan. Hala eta guztiz ere, Proposamenak Foru Zuzenbide Zibilaren ordenamendu juridikoa erabat aldatu nahi duela esan daitekeen heinean, aldakuntza batzuk zuzenean eragingo diote, tronkalitatearen erakundeak berak aldaketak sumatu ez arren.

### *1.1. Euskal Lege Zibil Foralaren aplikazio-eremua*

Proposamenaren testuaren aurrerakinetan esaten da Euskal Lege Zibil Foralak Euskal Autonomia Erkidego osoan indarra eduki behar duela, eta, hortaz, horren xedapenek aplikagarriak izan behar dutela lurralde osoan. Horrenbestez, testu bateratua aurkeztu da. Gogoratu beharra dago 3/1992 Legea hiru liburutan zatituta zegoela, bana lurralde historiko bakoitzeko. Proposamenenean, ostera, auzotasun erkide bat aintzatetsi, eta herritar guztientzat onargarri izan daitekeen legea plazaratu dute.

Nolanahi ere, erakundeen hedapena ez da erabatekoa izan. Arrazoiak arrazoi, tronkalitatearen erakunde, ondasunen komunikazioa bizkaitarren arteko ezkontzan eta Aiarako testamentua egiteko askatasunaren ezarpen eremua 3/1992 Legeak aurreikusi zuenera mugatu da. Beraz, idazketa-batzordeak erabaki du idazkera bera egitea ororentzat, Bizkaiko eta Aiarako arau bereziak jarraian datozela.

Honen isla da 8. artikulua idazkera, dioenean Legea Euskal Autonomia Erkidegoaren lurralde-eremu osoan aplikatuko dela, salbu eta manu zehatzek beren- beregi adierazten dutenean manu horiek lurralde jakin batean bakarrik daudela indarrean, tronkalitatearen kasurako, batik bat.

### *1.2. Jabetzaren familia izaera*

Proposamenak irauarazi egin nahi du jabetzaren familia izaera; izan ere, 5.1. artikulua dio jabetzaren gaineko euskal ikuskera ez dela indibidualista, solidarioa baizik, eta horren ondorioz, norberaren interesen gainetik familiaren nahiz gizartearen interesek lehentasuna dutela. Gainera, artikulua horren bigarren atalean esaten da legeek auzo-jabetza, fa-

milia-jabetza eta gizarte-jabetza babestuko dituztela tradizio historikoa kontuan hartuz eta une horretako gizarte-errealitateari egokitzuz.

Horrenbestez, Proposamenak jabetzaren familia izaera sustatzeko ahale-ginean tronkalitatearen erakundea indartu baino ez du egiten; izan ere, aurretiaz azaldu den moduan, tronkalitateaz hitz egitea familia jabetzari buruz hitz egitea da, familiaren iraunkortasuna bermatzea duena helburu. Honen isla Proposamenaren 61. artikuluan aurkitu daiteke eta horregatik, tronkalitateak ondarearen familia-izaera babesten duela esaten da.

### *1.3. Tronkalitatearen garrantzia*

Proposamenaren aurrerakinetara joanda, adierazi da Bizkaiko erakunderik esanguratsuen, zuzenbide pribatuari dagokionez, tronkalitatea dela eta bizkaitar legelarien aldetik, XX. mende hasieran, erakunderik bereizgarriena eta estimatuena zela aurretiaz aipatu den moduan.

Gainera, Proposamenak adierazten du egungo gizartearen bilakaera ez dela mota honetako erakundeen aldekoa baina, hala ere, Bizkaian dituen sustraiak aintzat hartuta, zuhurtasunak aholkatzen duela tronkalitatearen erakundea gordetzea. Hori da, batik bat, tronkalitatearen erakundea bere osotasunean arautu izanaren arrazoia, lehen esan bezala, 3/1992 Legearen arauketa jarraitu izan delako, ia inolako aldaketarik egin gabe.

### *1.4. Tronkalitateak sortu ditzakeen lege-gatazkak konpontzeko eskumena*

Lanaren aurreko atalean azaldu den moduan, tronkalitate erakundearen aplikazioa lege-gatazkak sortzen zituen oinordetzan Kode Zibilaren eta 3/1992 Legearen artean zein zen aplikagarri jakiteko. Egia da, Proposamenaren aurrerakinetan esaten den moduan, Kode Zibilak zuzenbide ordeztailerean izaera duela, baina salbuespen bat aurreikusten da, hau da, erakunde beregainak arautzen direnean, tronkalitatearen kasuan, esaterako.

Hori kontuan izanda, 9.1. artikuluan aurreikusi da Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean legeria-aniztasunak indarrean dirauen artean,

Eusko Legebiltzarrari dagokiola Euskal Lege zibilaren indarraldiko lurralde-eremua mugatzea, eta, hala denean, barne gatazkak konpontzeko arauak ezartzea ere bai. Bestetik, 9.2. artikulua dio arau berezirik izan ezean, zenbait antolamendu juridiko aldi berean izateak lege-gatazkak eragiten dituenen, gatazko konponduko direla estatuak emandako arau orokorren bidez, kasuan kasuko erakundearen izaera kontuan harturik. Eta, amaitzeko, 9.3. artikulua aurreikusi du tokiko gatazkak gertatzen direnean, lurralde batzuetan indarrean dauden arauen artean, edo gatazkak gertatzen direnean arau horien eta Euskal Autonomia Erkidegoko arau orokorren artean, gatazko konponduko direla, Kode Zibilaren xedapenen bitartez, betiere ondasun tronkalen arloan indarrean dagoen lurraldetasun-printzipioari kalterik egin gabe. Kontuan eduki behar da, halaber, 10.2. artikuluan ezarritakoa; euskal auzotasun zibila, edo, bestela, tokiko auzotasun zibila, hori aplikatu behar denean, Kode Zibilaren arauekin bat etorritik eskuratu, iraurarazi eta galdu egiten dela, betiere ondasun tronkalen kasuan lurraldetasun-printzipioari kalterik egin gabe.

Horrenbestez, Legea indarrean sartzerakoan, lege-gatazkak sortzen diren kasuetarako jurisprudentziara jo beharrean, Legea jo ahal izango da bertan arautu delako lehenengoz barrutiko lege-gatazkak konpontzeko eskumena Eusko Legebiltzarrari dagokiola, eta hori da, hain zuzen ere, autore askoren ustez, Estatuak gehien aztertuko duena eta beharbada Konstituzioaren kontraketaren helegitea jartzekotan, hori izango da lehenengo arrazoia, eskumenen banaketan arrazoituz.

#### *1.5. Tronkalitate erakundearen arauketaren desberdintasunak 3/1992 Legearekin konparatuz*

Euskal Lege Zibil Foralaren Proposamenean tronkalitatearen erakundea II. Liburuan arautu da, oinordetzei dagokiona, II. Tituluaren Hirugarren atalean, hain zuzen ere, testamentua egiteko askatasunari jarritako mugapenei dagokiona. Esan bezala, tronkalitate erakundearen edukiari dagokionez ez da aldaketa askorik burutu 3/1992 Legean araututakoa-

rekin konparatuz; alabaina, azpimarratzekoa da idazketa-batzordeak burutu duen lana Proposamenenaren forma eta idazkerari dagokionez artikulatua modu txukunago eta argiago batean burutu delako. Tronkalitate erakundearen edukiari dagokionez, jarraian aztertuko dira aurreko legeriarekiko ezberdintasun nabarienak.

Hasteko, eta 3/1992 Legearen antzeko idazkera erabiliz, 62. eta 64. artikuluei jarraituz, Bizkaiko Infanzonatuan edo Lur Lauan, Arabako Aramaio eta Laudioko udal mugarteetan kokaturiko onibarrak izango dira tronkaleko ondasunak, betiere, senide tronkeroak baldin badaude.

Dena dela, aldaketa sakona burutu da 68. artikuluan. Bertan adierazi da tronkalitatea sortzen dela Bizkaiko toki-auzotasun zibila edo Aramaio eta Laudio udal mugarteetako toki-auzotasun zibila duen pertsonak onibarra eskuratzen duen unetik eta une horretatik aurrera tronkalitatea hedatzen zaiela pertsona horren ondorengo guztiei. Beraz, 3/1992 Legearekin konparatuz, Proposamenak eskatzen du tronkalitatea eratzeko beharrezkoa dela lehenengo eskuratzaille horrek toki-auzotasun zibil zehatz horiek eduki izana, nahiz eta gero auzotasun hori galdu. Era berean, berdin da senide tronkeroen auzotasun zibila zein den, euren lehenespene-eskubideari eusten diote, titularrak *inter vivos* nahiz *mortis causa* gauzatzen dituen xedatze-egintza guztietan. Haatik, 68.3. artikuluan ezarri da tronkalitatea azkentzen dela titularrak Bizkaiko toki-auzotasun zibila galtzen duen unean ez badago senide tronkerorik zuzeneko lerroan ezta alboko lerroko bigarren eta hirugarren graduetan ere.

Beste alde batetik, senide tronkeroek ondasun tronkalak xedatzeko egintzak deuseztatu ahal izango dituzte lau urteko epean kanpokoen mesederako edo ondasunok eskuratzeko lehenespeneko lerroan ez dauden senideen mesederako burutu badira 69.1. artikuluan ezarritakoari jarraituz. Proposamenaren aurrerakinei jarraituz, hau izango litzateke berrikuntzarik nabariena. Arean ere, aspaldiko deuseztasun erabatekoa, tronkalitatetik kanpo diren arrotzen mesederako egindako dohaineko ekintzetan, deusezta-

garritasun erlatibo edo mugatu bihurtzen da, Jabetza Erregistroan noiz inskribatu eta hurrengo lau urtetan egikaritu behar baita.

## 2. Tronkalitatea epe luzera

Aurreko atalean esan den moduan, nahiz eta egungo gizartearen bilakaera tronkalitate erakundearen aldekoa ez izan, Bizkaian duen ohizko garrantzia dela eta, bere osotasunean gorde da Euskal Lege Zibil Foralaren Proposamenean.

Edozelan ere, horren aurkako iritziak ere badaude. Tronkalitatearen printzipioak testamentugilearen borondatea mugatu baino ez du egiten, seniparteak egiten duen era berean. Beraz, jabetza askatasunez besterentzeko muga ere bada. Gaur egungo gizartea, aldiz, gero eta askatasun gehiagoren alde dago ekonomia eta merkatu askatasunaren eraginez, batik bat. Gainera, Zuzenbide Pribatuaren joera da xedapen zibilak aginduzkoak ez izatea, esku-emaileak baizik. Horrenbestez, tronkalitatea aginduzko printzipio edo erakunde bat izatea jarraitzearen arrazoa garrantzizkoa izan beharko litzateke, Espainiako Konstituzioaren 33.2. artikuluari jarraituz jabetza pribatua eta oinordetzarako eskubideen funtzio sozialak eskubide horien edukia mugatzen duelako legeen arabera.

Tronkalitatearen helburua familiaren iraunkortasuna bermatzea da, horregatik jabetzan familiaren interesek lehentasuna dute titularraren interesen gainetik. Beraz, ulertu daiteke familia horri onibar horiek kenduko balitzaizkio familia iraunkortasunaren berme hori guztiz desagertuko litzatekeela. Edonola ere, nire ustez, tronkalitatearen printzipioa arautu egin zenean onibar horiek Erdi Aroan zeukaten balio ekonomikoa eta garrantzia zela eta izan zen. Beraz, garai hartako ikuspegia zen ondasun higigarriak ez emankorrak zirela eta horri jarraituz arautu zen tronkalitate printzipioa. Orain, ostera, onibar horien balio ekonomikoak edo probetxuak ez daukate zertan familiaren iraunkortasuna bermatu. Kontuan eduki behar da onibarrak baino balio gehiago duten ondasunak badirela gaur egun mer-

katuan; kontu korronteak, fondoak, enpresa bateko akzio edo partaidetzak, bitxiak edo pentsio-planak, besteak beste. Hala ere, nire ustez ez da ahaztu behar arbasoen etxean bizitzeak duen balio sentimentala hori izan baita Bizkaian egon den tradizioa, lehenengo eskuratzailleen ondorengoek baino ez eskuratzeko tronkaleko ondasunak, alegia. Baina, jokaera honi justifikazio juridikoa bilatzea zailagoa izango litzateke. Beharbada, justifikazio hori eremu politikoaren barnean baino ez da aurkituko; baserrien ondare kulturala kontserbatzea edota landa bizimoduaren sustapena hartu daitezke tronkalitatearen printzipioaren justifikazio moduan, baina, nire ustez, helburu horietarako tronkalitatearen erakundea erabiltzea tronkalitatea bera desitxuratzea baino ez litzateke izango.

Beste alde batetik, gainera, kontuan eduki behar da gaur egungo familiaren osaketa ez dela behinola izan zena. Gaur egungo familiak nekez osatuta daude hiru belaunaldiz, orokorrean aita-ama eta bere seme-alaba ezkongabeak baino ez dira etxe berean bizi, eta gehienez ere, aita-ama horien gurasoren bat ere haiekin bizi daiteke. Horren harira, Antonio Ipiens Llorcak dio, gaur egun familia nuklearraren lehentasunak tronkalitatearen printzipioaren esanahia edo indarra alde batera uzten duela<sup>49</sup>. Gainera, aspaldiko nekazaritza-, abeltzaintza-, artisautza- eta basogintza-ustiapenak alde batera utzi dira kasu askotan, beraz, nahiz eta jarduera horiek burutu ziren baserri eta landak tronkaleko senideentzat izan, nekez emango zaie garai bateko familia enpresaren erabilpena. Orduan, berriro ere, tronkaleko ondasunak helburu horietarako erabiltzen ez diren heinean, zaila dirudi familiaren iraunkortasuna bermatzea.

José Miguel Gorostiza Vicenteren ustetan<sup>50</sup>, aldiz, tronkalitatearen erakundea gaur egungo egoetara egokitzen da Euskal Herriko Auzitegi

<sup>49</sup> IPIENS LLORCA, ANTONIO: «Breves notas sobre la troncalidad». *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*. LXV. urtea. 594 zk. Madril: 1989, 1553 or.

<sup>50</sup> GOROSTIZA VICENTE, JOSÉ M.: «Estudio de la vigencia y el valor actual de la Troncalidad como limitación a la libertad de testar, en el desarrollo del Derecho Civil Vasco». Eusko Ikaskuntza. Azpilkueta: Cuadernos de Derecho. 21. zk., 2010, 7-53. orr.



Nagusiko Arlo Zibileko Jurisprudentziaren bidez, honek argitu eta mugatu egiten baititu haren eragin erradikalenak. Horrela, tronkalitatearen erakundeak eragin du gaur egun jabetzaren ikuskera modu bihozberago batean hartzea, gizartea kontuan hartzen duena. Hala eta guztiz ere, lehen aipatutako arrazoietan oinarrituz, ondorioztatu daiteke azken mendean zehar familiak jasan dituen aldaketak ez direla epe luzera tronkalitatearen aginduzko erakunde batekin bategarriak izango, eta horregatik, tronkalitatearen izaera mantentzekotan erakunde honi beste norabide bat eman beharko zaiola.

Azken ideia hau abiapuntutzat hartuta, Andres Urrutia Badiolaren iritzia aintzat hartuta<sup>51</sup>, eta jabetzari mugak ezartzeko pisuzko arrazoiak egon behar direlakoan, tronkalitatearen erakundea erabili beharko litzateke babes berezia behar duten ondasun eta pertsonen gainean, betiere horiek babesteak euren mantenua bermatzen baldin badute. Horrela ondasun zehatz batzuk, balio berezia dutenak, babestuko lirateke pertsonen eta haien egoeraren arabera.

Adibide bakar batzuk baino ez jartzekotan, eta modu laburrean azaltzeko tenorean, gutxienez, bi egoeratan aurreikusi beharko litzateke tronkalitatearen printzipioa: batetik, bereziki babestutako familia eta pertsonen kasuan, horien mantenua bermatzeko helburuarekin, eta bestetik, edozein motatako familia-ustiapenen jarraipena bermatzeko helburua duen erakundeak. Bi egoera horiek lehentasuna dute jabetza xedatzeko askatasunaren gainean, batez ere, kontuan izanda tronkalitatearen eraginez jabetzak familia izaera eta izaera solidarioa duela.

Honen harira, 2003ko azaroaren 18an, Espainiako Gobernuak 41/2003 Legea onetsi du minusbaliotasuna duten pertsonen ondarea babesteko. Horrela, Lege honen 1.1. artikuluari jarraituz, babes berezia eza-

---

<sup>51</sup> URRUTIA BADIOLA, Andrés: «Seguridad jurídica preventiva y troncalidad». *X Jornada Práctica sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco*, 2011ko azaroaren 30ekoa.

rri da pertsona hauen ondarea bermatzeko, eta ondasunen eta eskubi-  
deen dohainezko eskualdaketa sustatu nahi da horien elikagai beharrak  
asetzeko. Beraz, orain dela gutxi jabetzari jarri zaizkion muga horiek  
kontuan hartuta, tronkalitatearen izaera aintzat hartu eta bestelako nora-  
bidea eman behar zaiolakoan nago.

Alde batetik, bereziki babestutako pertsonen mantenua bermatzeko  
erabili daiteke tronkalitatea, ezgaitu edo adingabeen kasuetarako, batik  
bat. Horrela, horien etorkizuneko berme gisa aplikatu beharko litzateke  
tronkalitatearen printzipioa, eta ondorioz, haien gurasoek euren ondasu-  
nak gorde beharko lituzkete horien alde edo, gutxienez, bizileku eta bi-  
zitzeko beste elikagaiak nahitaez, ikasketa eta osasun gastuak barne, gu-  
rasoen gurasoak egin zuten era berean. Honek eragingo lukeena da, be-  
launaldiz belaunaldi aplikatuta, adingabe edo ezgaitu batek bizilekurik  
gabe geratu ez izatea. Aldi berean, ondasun horien gaineko xedatzea  
debekatu beharko litzateke, baita enbargatzeko ezintasuna ere ezarri be-  
harko litzateke, betiere egoera horretan dagoen familiaren aurrean, hau  
da, bere barnean ezgaitu edo adingabea bat egoten diren kasuetarako  
eta denbora tarte horretarako baino ez. Horrela, ezgaituak gaitasuna be-  
rreskuratu eta gero, edo adingabeak nagusitasuna lortzerakoan, eskura-  
tzeko lehentasuna edukiko luke, gaur egungo tronkalitateak aurreikusten  
duen era berean, hau da, hirugarren batek erosiko lukeen prezio ber-  
dinean.

Beste alde batetik, tronkalitatearen printzipioa arautu beharko litzate-  
ke familia- ustiapenaren iraunkortasuna bermatzen dituen ondasun guz-  
tien gainean, hau da nekazaritza-, industria-, artisautza-, basogintza- eta  
merkataritza-ustiapen familiarraren kasuan, familia enpresa bera eta hori  
osatzen duten ondasun guztiak tronkalitatearen menpean egon beharko  
lirateke, eta horrela, familia-ustiapen horiosatzen duten familia- kideek  
hori eskuratzeko lehentasuna edukiko lukete, euren jardueraren iraun-  
kortasuna bermatuko zelarik.

Hori kontuan izanda, bi egoera horietan tronkalitatearen erakundea aginduzkoa izan beharko litzateke, eta, horrez gain, borondatezko erakunde gisa jardungo luke beste zenbait egoeretan, jabetzaren titularrek eskritura publiko batean horrela ezarriz gero. Ikusi daitekeen moduan, tronkalitatea onibarrak ez diren ondasunetara ere hedatuko litzateke, eta ez zen aintzat hartuko, nahitaez, ondasunak dauden lekua, ondasunon eta zehaztutako pertsonen arteko harremana baizik.

### III. ONDORIOAK

Lehenengoa-. Tronkalitatearen erakundeak, lan honetan zehar azalara zi den moduan, baditu haren izaerari lotuta dauden berezitasun batzuk, oso baliotsuak direnak Bizkaiko ordenamendu juridikoan, eta, hori da, hain zuzen ere, erakunde hau galtzea eragotzi beharraren arrazoi nagusia. Berezitasun horiek dakartzate, batik bat, bizkaitarron jabetza eta beste ordenamendu juridikoen duten jabetzaren ulerkeren arteko ezberdintasunak. Bizkaian familiari ematen zaion gailentasuna erakunde honetan islatu da eta, azken finean, ondasun jakin batzuen gaineko jabetza mugatuta dago horri esker familiako interesak lehentasuna dutelako banakako interesen aurrean. Beraz, horri jarraituz, banakako interesak adingabe edo ezgaituen beharrak kontuan hartu beharko ditu, hala nola, familia enpresaren interesak; horiek baitira, nire ustez, jabetza mugatzeko arrazoi nabarietak.

Bigarrena-. Tronkalitateak, gainera, garrantzi handia dauka familiaren barruan burutzen diren ekintza guztietan, esan bezala, *inter vivos* zein *mortis causa* izan, tronkalitatearen printzipioa nahitaez errespetatu behar delako. Horren ondorioz, tronkalitateak eraginak ditu familiaren eragiketa guztietan, seme-alaba eta gurasoen arteko harremanetan zein ezkontideen arteko harremanetan. Horrenbestez, gaur egun Bizkaian ematen diren familia prozeduretan, nahitaez kontuan eduki behar da ea ez-

tabaidatzen den hori tronkalitatearen ezarpen eremuan dagoen edo ez, horrela bada, tronkalitatearen arauak nahitaez aplikatu beharko direlako.

Hirugarrena-. Honen harira, nire ustez, tronkalitatearen izaera aintzat hartuta, erakunde hau aginduzkoa izateak gero eta arrazoi edo justifikazio gutxiago ditu, baldin eta aipatutako bi kasu horiek ematen ez badira, hau da, adingabeko edo ezgaituen kasuan edo familia enpresa baten aurrean baldin ez bagaude. Nire iritzia da askatasuna edo borondatea gailendu beharko zela, batez ere tronkalitatea agertzen den kasu guztietan ez dagoelako zertan familiaren iraunkortasuna bermatu, familiaren interesik edo beharrik ez dagoelako, eta hori da, hartan ere, horrek duen helburua, eta, ostera, tronkalitatearen ezarpen eremutik kanpo badaude familiari berme batzuk emateko beharra. Azken kasu honi erreparatuz, ez dauka inolako esanahirik gaur egun, tronkalitateak duen helburua kontuan hartuta, helburu horrek bere burua mugatuta ikustea legeak ezarritako elementu errealak, pertsonalak, eta kausalak ematen ez diren kasuetarako.

Laugarrena-. Amaitzeko, eta ondorio gisa, behar baino beharrezkoa deritzot tronkalitatearen erakundeari irtenbide bat ematea. Nire aburuz, oso tamalgarria izango litzateke tronkalitateak familiaren iraunkortasuna bermatzeko erantzuna edukita, erakunde hau galtzea legegileak egungo familia ereduera moldatu ez izateagatik. Badirudi, legegileak Arnaud Oihenart euskal legelari, idazle eta intelektualak erabilitako esamolde euskal-frantsesa ahaztuta duela *Herrik bere leque, etxek bere astura*<sup>52</sup>, azken baten familiak berak zuen bere nolabaiteko lege ekimena, ohituran oinarrituta, eta nire ustez, ohiturak gizarte eta familia bakoitzaren inguruabarretara egokitu izan dira historian zehar; aldiz, ohitura aginduzko legean bilakatzean aztura horiek bere horretan gelditzen dira legea aldatu arte. Hori dela eta, uste dut tronkalitateari araubide malguago bat

---

<sup>52</sup> LARRAZABAL BASÁÑEZ, Santiago: *Derecho Público de los territorios forales. De los Orígenes a la Abolición Foral liburua aurkezteko hitzaldia*.

eman beharko zaiola, aipatutako bi kasu horietan izan ezik, erakunde honi borondatezko izaera emanaz familiek eurek erabaki dezaten bere ohitura nola egokitu euren inguruabarretara. Azken finean, legeak jendearen eta gizartearen beharretara egokitu behar dira eta horregatik tronkalitatearen arauketa gaur egungo familiaren egoera berriak aintzat hartuz baino ez da tronkalitate printzipioaren benetako xedea beteko, familiaren iraunkortasuna, alegia.

#### IV. ITURRIAK ETA BIBLIOGRAFIA

##### 1. Iturriak

###### 1.1. *Legeak*

Bizkaiko Foru Zaharra, 1452ko ekainaren 2ko Gernikako Batzan onetsitakoa. Bilbo: Imprenta y Librería de José de Astuy, 1909.

Bizkaiko Foru Berria, 1526ko apirilaren 5eko Gernikako Batzan onetsitakoa. Durango: Editor Leopoldo Zugaza, 1976.

1889ko Errege Dekretua, uztailaren 24koa, Kode Zibilarena.

32/1959 Legea, uztailaren 30ekoa, Bizkaiko eta Arabako Zuzenbide Zibilaren Bildumari buruzkoa.

1/1973 Legea, martxoaren 1ekoa, Nafarroako Konpilazio Zibil Foralarena.

1978ko Espainiako Konstituzioa.

3/1979 Lege Organikoa, abenduaren 18koa, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuarena.

6/1988 Legea, martxoaren 18koa, Foru-Zuzenbide Zibilaren Zatzko Aldaketari buruzkoa.

3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari buruzkoa.

3/1999 Legea, azaroaren 16koa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionez.

1/2011 Lege Dekretua, martxoaren 22koa, Aragoiko Gobernuarena, Aragoiko Kode Zibil Foralarena.

10/2008 Legea, uztailaren 10ekoa, Kataluniako Kode Zibilaren Laugarren Libururena, oinordetzarena.

41/2003 Legea, azaroaren 18koa, minusbaliotasuna duten pertsonen ondarea babestekoa.

2/2006 Legea, ekainaren 14koa, Galiziako Zuzenbide Zibilarena.

10/2008 Legea, uztailaren 10ekoa, Kataluniako Kode Zibilaren Laugarren Liburuarena, oinordetzarena.

1/2011 Lege Dekretua, martxoaren 22koa, Aragoiko Gobernuarena, Aragoiko Kode Zibil Foralarena.

650/2012 Araudia Europar Parlamentu eta Kontseiluarena, mortis causa oinordetza arautzen duena.

2015eko martxoaren 10ean Euskal Legebiltzarrean aurkeztutako Euskal Lege Zibil Foralaren Proposamena.

## 1.2. *Jurisprudentzia*

1960ko urriaren 11ko Auzitegi Gorenaren Epaia.

1962ko abenduaren 22ko Auzitegi Gorenaren Epaia. 2010eko martxoaren 11ko Auzitegi Gorenaren Epaia.

## 2. Doktrina

### 2.1. *Liburuak*

ÁLVAREZ POSADILLA, Juan: *Comentarios a las Leyes de Toro, según su espíritu y el de la legislación de España en que se tratan las cuestiones prácticas...* Madril: Imprenta de la viuda de Ibarra, 1796.

ANGULO LAGUNA, Diego: *Derecho Privado de Vizcaya*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2006.

BARRIO GALLARDO, Aurelio: *El largo camino hacia la libertad de testar. De la legítima al derecho sucesorios de alimentos*. Madril: Dykinson, 2012.

BRAGA DA CRUZ, Guilherme: *O direito da troncalidade e o regime jurídico do património familiar*. Braga: Livraria Cruz, 1941.

CELAYA IBARRA, Adrián.: *Compilación de Vizcaya y Álava en ALBALADEJO, M. (dir.): Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*, tomo XXVI. Madrid: Edersa, 1978.

— *Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco en ALBALADEJO, M.; D AZ ALABART, S. (dirs.): Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*, tomo XXVI. Madrid: Edersa, 1997.

— *El Derecho Civil de Vizcaya antes del Código Civil*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2007.

— *La Troncalidad. Curso de Derecho Civil Vasco*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1998.

CHALBAUD Y ERRAZQUIN, Luis: *La troncalidad en el Fuero de Vizcaya (1898)*. Bilbao: Zuzenbidearen Euskal Akademia, edición fàcsimil 1898, Bilbo: Tipografía de Sebastián Amorrortu, 2005.

CUADRA SALCEDO, Fernando de la: *Fuero de las M.N. y L. Encartaciones*. (Introducción de Adrián Celaya). Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia, edición fàcsimil 1916, Bilbo: Imprenta de la Casa de Misericordia, 2007.

DELGADO ECHEVERRIA, Jesús: «Propiedad troncal y patrimonio familiar». Deustu: Jornadas Internacionales sobre Instituciones civiles vascas, 1991, 44-63. orr.

FERNÁNDEZ ASIAIN, Eugenio: *Estudios de Derecho Foral Navarro*. Iruña: Consejo de Estudios de Derecho Navarro, 1956.

GARCÍA GONZÁLEZ, Francisco eta al.: *La Historia de la Familia en la Península Ibérica (siglos XVI-XIX). Balance regional y perspectivas*. Cuenca: Ediciones de la Universidad de Castilla-La Mancha, 2008.

GARCÍA ROYO, Luis: *La foralidad civil de las provincias vascongadas. III. liburukia*. Gazteiz: S. Católica, 1952, 11. or.

HORMAECHE, Ramón de: *Leyes Civiles de Vizcaya*. Bilbo: Tipografía Católica de José de Astuy, 1891, 97-98. orr.

IMAZ ZUBIAUR, Leire: «Tronkalitatea». *Euskal Zuzenbide Zibila II*. Euskal Herria: EHUko Euskararen Arloko Errektoreordetzaren Sare Argitalpena, 2014.

IRUJO OLLO, Manuel: *Instituciones Jurídicas Vascas*. Tafalla: Ekin-Txalaparta argitaletxea, 2. argitaraldia, 2006.

JADO y VENTADES, Rodrigo de: *Derecho Civil de Vizcaya. 2. argitaraldia (1923)*. Bilbao: Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2004.

LE PLAY, Frédéric: *La réforme social en France de duite de l'observation comparee des peuples europeens*. Paris: Plon, 1864.

MORET Y PRENDESGAST, Segismundo eta SILVELA Luis: *La familia foral y la familia castellana: Memoria premiada por la Academia Matritense de Jurisprudencia y Legilación en el concurso abierto en 20 de junio de 1862*. Madril: Imprenta y Librería de la Señora Viuda Hijos de D. José Cuesta, 1863.

MOUTON Y OCAMPO, Luis: *Enciclopedia Jurídica Española. 30. liburukia*. Barcelona: Francisco Seix. Editor, 1910.

SÁNCHEZ DE LA TORRE, Ángel: *Dos aspectos del Derecho Vizcaino: la Troncalidad y la Legítima*. Madril: Librería Jiménez Mayor, 66-68 Madril, 1950.

SOLANO POLANCO, José de: *Estudios jurídicos del Fuero de Bizkaya*. Bilbo: Diputación de Bizcaya, 1918.

URRUTIA BADIOLA, Andrés: «Ámbito territorial y personal de aplicación del Fuero Civil de Bizkaia. La troncalidad y sus efectos en las enajenaciones «inter vivos» de los bienes troncales: la «saca foral». *El Derecho Foral Vasco tras la reforma de 1992*. Bilbo: Aranzadi, 1996.

VALLET DE GOYTISOLO, Juan Berchmans: *La troncalidad en relación con la saca foral en la Tierra Llana de Vizcaya. El Derecho Foral Vasco tras la reforma de 1992*. Bilbo: Aranzadi, 1996, 74. or.



VALPUESTA FERNÁNDEZ, Rosario: *La disciplina constitucional de la familia en la experiencia europea*. Valentzia: Tirant Lo Blanch, 2012.

VARSÍ ROSPIGLIOSI, Enrique eta al.: *Patrimonio Familiar*. Per : Taller de Investigación de la Universidad de San Martín de Porres, 2011.

## 2. 2. Artikuluak

CELAYA IBARRA, Adrián: «La Troncalidad en Vizcaya». *Anuario de Derecho Foral-I*. Iruña: Separata, 1975, 357-379. orr.

— «La Troncalidad». *JADO Aldizkaria*. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria. Bilbo. XI. urtea. 23zk. 2012ko ekaina, 7-19. orr.

GOROSTIZA VICENTE, José M.: «Estudio de la vigencia y el valor actual de la Troncalidad como limitación a la libertad de testar, en el desarrollo del Derecho Civil Vasco». *Eusko Ikaskuntza*. Azpilkueta: Cuadernos de Derecho. 21. zk., 2010, 7-53. orr.

IPIENS LLORCA, Antonio: «Breves notas sobre la troncalidad». *Revista Crítica de Derecho Inmobiliario*. LXV. urtea. 594 zk. Madril: 1989, 1553-1562 orr.

MARTÍNEZ MARTÍNEZ, María: «Sucesión troncal aragonesa y comparación con la del Derecho vasco ante una eventual reforma». *JADO Aldizkaria*. Bilbo: Zuzenbidearen Euskal Akademia. XI. urtea. 23 zk. 2012ko ekaina, 21-65 orr.

MONASTERIO ASPIRI, Itziar: «La familia en Bizkaia y su régimen jurídico». *JADO Aldizkaria*. Zuzenbidearen Euskal Akademia. Bilbo, XI. urtea, 5. zk. 2005ko martxoa, 31-63 orr.

MONREAL ZIA, Gregorio: «Bizkaiko Enkarterriko lege-bildumak». *Iura vasconiae: revista de derecho histórico y autonómico de Vasconia*. 5. zk., 2880, 9-102 orr.

SCALA, José María: «La troncalidad en el Derecho Foral de Vizcaya». *Urbis XI 38, 39 eta 40zb.k.*, 1963, 35-52, 35-49 eta 11-26 orr. hurrenez hurren.

## 2.3. Jardunaldiak

LARRAZABAL BASÁEZ, Santiago: *Derecho Público de los territorios forales. De los Orígenes a la Abolición Foral liburua aurkezteko hitzaldia*. Bizkaiko Batzar Nagusien Hitzaldi Aretoa: 2005eko maiatzaren 18a, asteazkena, 19.00etan.

URRUTIA BADIOLA, Andrés: «*Seguridad jurídica preventiva y troncalidad*». *X Jornada Práctica sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco*, 2011ko azaroaren 30ekoa.

#### 2.4. *Web orriak*

Auñamendi Eusko Entziklopedia. Zuzenbide Pribatua (azken kontsulta: maiatzak 13).

Euskal zuzenbide zibilaren webgunea (azken kontsulta: maiatzak 13)

Zuzenbidearen Euskal Akademia (azken kontsulta: maiatzak 13).